

1.12.Irudia: Albo-erremateen zuinketa

Arrastelen zuinketa:


Informazio osoa bildu ondoren, arrastelen zuinketa egin da hegoa osoa betez. Garrantzia handiagoa dute horizontalean kokatutako arrastelak, Irudian ikusi ahal da zuinketa horizontala zehatza. Zuinketa bertikalean solik albo-erremateen distantzia errespetatu behar da, gainerako distantziak 1-1,4 metro tartean egon ahal dira.



1.13.Irudia: Arrastelen zuinketa zehatza

Tximiniak eta aireztapen irteerak:

Zuinketa oztokatzen duten elementuak dira, Irudiaren kotak errespetatuz Flex-Alu isolamendu geruza jarriko da. Horrela, geruza irteera-elementuraren formara moldatuko da hormigoia guztiz isolatuz.



1.14.Irudia: Tximinien zuinketa




1.15.Irudia: Irteera-elementuen geruza eta lamina


Hegoaren osagarriak:

Alde batetik, uren ebakuazioa bermatu behar da, egiturako estalkiaren elementuak buzti gabe, horretarako kanaloia kokatuko da. Beraz, teilak ipintzen hasi baino lehen kanaloia kokatu behar da inguratzaileen bidez eta kanaloia %1-eko inklinazioa izan behar du gutxienez zorrotan noranzkoan.

Beste aldetik, teilen lehenengo ilaran orratza bat kokatuko da, modu honetan airearen sarrera usteen da bereko aireztapenerako eta animalien sarrera saihestuko da.




1.16.Irudia: Osagarrien zuinketa



1.17.Irudia: Orratza


**2.2.4.2. ALBOKO-ITXITURA**

Etxebizitza baten energiaren %20-a zubi-termikoen ondorioz galtzen da, forjatuen itxitura edo beirazko itxituren bidez eman ahal dira. Horregatik beharrezkoa da neurri konstruktiboak ezartzea hauek eliminatzeko edo gutxienez gutxitzeko. Hauen artean kanpoaldeko isolamendu termikoko (SATE) itxitura nabarmentzen da, gure kasuan erabilitako itxitura-sistema da.



**2.1. Irudia: SATE barik (Zubi-termikoa) eta SATE-rekin arteko diferentzia**

Isolamendu termikoa hainbat materialen bidez burutzen da, egitura honen kasuan termo buztinezko adreiluaren kanpoaldean PROPANSA enpresak eskaintako elementuak ipiniko dira.



**2.2. Irudia: PROPAN AISTERM konposaketa**

Hasteko kordoi forman PROPAN AISTERM panelak kokatuko dira, horretarako lehenengo PROPAN AISTERM morteroa jarriko da panelen barnealdean adreiluen kontra.



\*Conductividad térmica:  
0,037 W/mK, norma EN 12667  
\*Dimensiones: 100 x 50 cm.

DATOS TÉCNICOS	
<b>Evaluación Técnica Europea</b>	<b>ETE 09/0005</b>
Agua de amasado	18 ± 1%
Tiempo de vida de la mezcla	60 minutos
Temperatura de aplicación	+10°C a +35°C
Adherencia a tracción	≥ 0,5 N/mm <sup>2</sup>
Resistencia a flexotracción	≥ 3 N/mm <sup>2</sup>
Resistencia a compresión	≥ 8 N/mm <sup>2</sup>
Coefficiente de capilaridad	≤ 0,2 Kg/m <sup>2</sup> · min <sup>1/2</sup>
Coefficiente de permeabilidad	≤ 10
Conductividad térmica (λ)	0,5 ± 0,1 W/m · K




**2.3.EPS Panelak**

**2.4. Irudia: PROPAN AISTERM morteroa**



Aluminiozko profil baten gainean kokatzen dira panelak, PROPAN AISTERM sistemaren alienazioa eta lotura bermatuz. Morteroa erabili arren, plastikozko perno batzuk ipini behar dira paneletan hauek ondo finkatzeko.



PROPAM® AISTERM  
PERFIL DE ARRANQUE  
CON GOTERÓN



PROPAM® AISTERM  
PERFIL CIERRE LATERAL



PROPAM® AISTERM TACOS  
FIJACIÓN SOPORTES  
A,B,C




ARANDELA AISTERM  
PARA TACO

### 2.5.Irudia: PROPAN AISTERM finkapen osagarriak

Panelak ondo finkatu ondoren lehen erabilitako morteroa beste kapa ipini behar da, geroago, bidriozko sare bat jartzen da, eta gainetik morterozko beste kapa bat ematen da. Gure kasuan, zokalo bat dagoenez sare berezi bat jarri behar da 330g-koa.



PROPAM® AISTERM MALLA  
FIBRA DE VIDRIO 160



PROPAM® AISTERM MALLA  
FIBRA DE VIDRIO 330

### 2.6. Irudia: PROPAN AISTERM sareak

Azkenik, akaberak egiteko kanpoaldetik eta barnetik REVAT PLAS estaldurazko morteroa jarriko da beste morteroaren gainean, bai kanpoaldetik eta bat barnealdetik.

DATOS TÉCNICOS	
<b>Evaluación Técnica Europea</b>	<b>ETE 09/0005</b>
Densidad aparente	1,7 ± 0,1 g/cm <sup>3</sup>
pH	8,5 ± 0,5%
Extracto seco	80 ± 5%
Comportamiento al fuego	No inflamable
Espesor de aplicación	2 a 3 mm
Temperatura de aplicación	+5°C a +35°C
Secado al tacto	1 a 3 horas
Contenido en Componentes Orgánicos Volátiles (COV)	≤ 1000 µg/m <sup>3</sup>



### 2.7. Irudia: REVAT PLAS estaldurazko morteroa


## 2.2.5. SANEAMENDUA

Saneamendua NTE-ISS eta CTE DB SE-HS araudiak jarraituz diseinatuko da. Horretarako, kontuan izan dira ondorengoak:

Saneamendu sare bat jarriko da euri-eurientzako eta beste bat hondakin uren ebakuaziorako. Malda desberdineko hodiak aurkituko dira, bi talde nagusienetan bananduko dira, bertikala eta orokorrak horizontalak. Bertikalak bitarteko solairu eta estalkiko ura garraio orokorreko hodietara eramaten dute.

Ur-sarearen kasuan, P.V.C.-ezko hodiak erabiliko dira eta diametro guztiak 160mm-koak izango dira. Terrazatan sumideroak ipini beharko dira uren ebakuazioa errazteko, eta ur-pilaketak saihesteko, P.V.C.-ezkoak izango dira ere.


SUMIDEROS PVC	
CÓDIGO	DESCRIPCIÓN
43870	SUM. SIF. PP 100X100
43973	SUM. SIF. PP 150X150
75113	SUM. SIF. PP CALZADA 160/200



5.1.Irudia: Sumideroa

Orduan, sumideroetatik, teiltuen kaneloietatik eta goiko hustubideetatik datorren ura jaitsiera hodietara eramango dute eta hauetatik lurzoruan dauden hodiak hormigoizko 60x60 cm-ko erregistro kutxetara.

TUBERÍAS SANEAMIENTO PVC LISO SN <sub>2</sub>	
Código	Descripción
10317	TUB. STO. PVC LISO SN <sub>2</sub> TEJA DN-110
10318	TUB. STO. PVC LISO SN <sub>2</sub> TEJA DN-125
10060	TUB. STO. PVC LISO SN <sub>2</sub> TEJA DN-160
10061	TUB. STO. PVC LISO SN <sub>2</sub> TEJA DN-200
10062	TUB. STO. PVC LISO SN <sub>2</sub> TEJA DN-250
10063	TUB. STO. PVC LISO SN <sub>2</sub> TEJA DN-315



5.2.Irudia: Saneamendu hoditeria

ARQUETAS HORMIGÓN	
Código	Descripción
42537	ARQUETA HORMIGÓN 30X 30 C/FONDO
42536	ARQUETA HORMIGÓN 30X 30 S/FONDO
42520	ARQUETA HORMIGÓN 40X 40 C/FONDO
42519	ARQUETA HORMIGÓN 40X 40 S/FONDO
42526	ARQUETA HORMIGÓN 50X 50 C/FONDO
42535	ARQUETA HORMIGÓN 50X 50 S/FONDO
44994	ARQUETA HORMIGÓN 50X 50X 50 S/FONDO
42521	ARQUETA HORMIGÓN 60X 60 C/FONDO
42528	ARQUETA HORMIGÓN 60X 60 S/FONDO

Código	Descripción
44628	ARQUETA HORMIGÓN IBERDROLA CONO Y BASE
47289	ARQUETA HORMIGÓN TELEFÓNICA TIPO H-III 70X80 H=82
79015	ARQUETA HORMIGÓN TIPO D C/TAPA ADIF
78733	ARQUETA HORMIGÓN TIPO D S/TAPA ADIF
46773	ARQUETA HORMIGÓN TIPO D TELEFÓNICA




5.3. Erregistro-kutxa

Produktu guztiak SANIPLAST enpresatik hartu dira, aurrekontu osoa batetan biltzeko, horrela merkeago izateko aukera dagoelako.

Hondakinen sarearen kasuan P.V.C.-ezko hodiak erabiliko dira ere, baina diametroak 110 mm-koak konketetan eta dutxen hodietan eta gainerakoak 160mm-koak dira. Dutxa eta konketa bikoteak sifoi batetan biltzen dira komun bakoitzean, beraz, ez dute sifoi independenteak, modu honetan, zerbitzuren bat denbora luzean ez erabili arren beste funtzionamenduen jarraitzen baldin badu usain txarrak saihestuko dira, sifoi bat beteta egongo delako.

BOTES SIFÓNICOS	
Código	Descripción
46799	BOTE SIFÓNICO CORTO 40X50
31106	BOTE SIFÓNICO EXTENSIBLE 110X50X40
43931	BOTE SIFÓNICO PVC 110X40X50
74848	BOTE SIFÓNICO PVC 110X40X50 SIN REJ.



#### 5.4.Irudia: Sifoi

## **2.3. CTE KODEAREN BETETZEA**

### **2.3.1. HE-OD. ENERGIAREN AURREZTEA**

Oinarrizko dokumentu (OD) honek zehazten ditu energia aurrezteari dagozkion oinarrizko eskakizunak betetzea ahalbidetzen duten arauak eta prozedurak. OD honen atalak bat datoz HE 1-HE 5 bitarteko oinarrizko eskakizunekin. Atal bakoitza behar bezala aplikatzeak hari dagokion oinarrizko eskakizuna betetzea dakar. OD osoa egoki aplikatuz gero, «Energia aurrezte» oinarrizko eskakizuna betetzen da.

#### 15.1. HE 1 oinarrizko eskakizuna: Energia-eskaria mugatzea

Eraikinek inguratzaile bat izan behar dute, ezaugarri egokiak dituen ongizate termikoa lortzeko beharrezkoa den energia-eskaria behar bezala mugatzeko, tokiko klimaren, eraikinaren erabileraren eta urtaroaren arabera eta orobat isolamenduaren, inertziaren, airearentzako iragazkortasunaren eta eguzki erradiazioarekiko esposizioaren aldetik izango dituen ezaugarrien ondorioz; eraikinaren ezaugarriei kalte egin diezaioketen azaleko eta zirrikitueta kondentsazio-hezetasunak agertzeko arriskua murriztu egingo da, eta zubi termikoak egokiro tratatuko dira, bero-galera edo -igoerak mugatzeko eta arazo higrotermikoak saihesteko.

#### 15.2. HE 2 oinarrizko eskakizuna: Instalazio termikoen errendimendua

Eraikinek instalazio termiko egokiak izango dituzte, biztanleei ongizate termikoa eskaintzeko. Betekizun hori, gaur egun, Eraikinetako Instalazio Termikoen Araudian (RITE) garatzen da, eta haren aplikazioa eraikinaren proiektuan zehaztuko da.

Berez, aipatutako araudia betetzen da, hurrengo instalazioa proiektatzen da:

- Osasun ur-beroa eta Berogailuaren instalazioa. Galdara mixtoa (Gas Naturala)

#### 15.4. HE 4 oinarrizko eskakizuna: Etxeko ur berorako eguzki-energiaren gutxienekoa

Kasu honetan, eraiki berria denez ACS eskakizuna 50 l/d baino altuagoa da, ondorioz eguzki-energiak ACS-ren %30a bete behar du.

## 2.3.2. HE-OD. OSASUNGARRITASUNA

### 13. Osasungarritasunaren (HO) oinarrizko eskakizunak

1. «Higienea, osasuna eta ingurumenaren babesa» (aurrerantzean osasungarritasuna) oinarrizko eskakizunaren helburua da maila onargarri batera murriztea erabiltzaileek eraikinen barrualdean eta erabilera-baldintza normaletan eragozpenak eta gaixotasunak nozitzeko arriskua, eta, orobat, eraikinen proiektu, eraikuntza, erabilera eta mantentze-lanen ezaugarrien ondorioz, eraikinak narriatzeko eta hurbileko ingurunea hondatzeko arriskua.
2. Helburu hori betetzeko, ondoko ataletan zehazten diren oinarrizko eskakizunak betetzeko moduan proiektatuko, mantenduko eta erabiliko dira eraikinak.
3. «HO Osasungarritasuna» oinarrizko dokumentuak zehazten du zer parametro objektibo eta prozeduraren bitartez ziurtatu oinarrizko eskakizunak betetzen direla eta osasungarritasunaren oinarrizko betekizunari dagokion gutxieneko kalitate-maila gainditzen dela.

#### 13.1. HO 1 oinarrizko eskakizuna: Hezetasunaren kontrako babesa

Mugatu egingo da, espero izatekoa den heinean, prezipitazio atmosferikoetako, jariatzeetako, lurreko edota kondentsazioetako uraren eraginez eraikinen eta haien itxituren barrualdera ura edo hezetasuna sartzeko arriskua; bitartekoak jarriko dira barrura sartzea saihesteko edo, sartuz gero, kalterik eragin gabe ateratzeko.

#### 2.2.5.1. HORMAK

Lurrarekin kontaktua duten hormei eskatzen zaien gutxieneko iragazgaitasun-maila, lurreko eta jariatzeetako uraren aurkakoa, 2.1 taulan lortzen da, uraren presentziaren eta lurraren iragazkortasun koefizientearen arabera.

2.1 taula  
Hormek izan beharreko gutxieneko iragazgaitasun-maila

Uraren presentzia	Lurraren iragazkortasun-koefizientea		
	$K_s \geq 10^{-2} \text{ cm/s}$	$10^{-5} < K_s < 10^{-2} \text{ cm/s}$	$K_s \geq 10^{-2} \text{ cm/s}$
Handia	5	5	4
Ertaina	3	2	2
Txikia	1	1	1

Kasu honetan, lurraren iragazgaitasun-maila  $10^{-5} < K_s < 10^{-2}$  artean dago eta uraren presentzia txikia dago, beraz iragazgaitasun-gradua 1 ateratzen da. Orduan 2.2 Taularen arabera horma hurrengo ezaugarriak izan behar ditu I2+D1+D5.

2.2 taula  
Hormentzako irtenbideen baldintzak

	Grabitate-horma			Horma flexoerresistentea			Pantaila-horma			
	Barne-iragazgaiz	Kanpo-iragazgaiz	Partzialki estankoa	Barne-iragazgaiz	Kanpo-iragazgaiz	Partzialki estankoa	Barne-iragazgaiz	Kanpo-iragazgaiz	Partzialki estankoa	
Iragazgaiztasun-maila	≤1	I2+D1+D5	I2+I3 +D1+ D5	V1	C1+I2 +D1+D5	I2+I3 +D1+D5	V1	C2+I2 +D1+D5	C2+I2 +D1+D5	
	≤2	C3+I1 +D1+D3 <sup>(3)</sup>	I1+I3 +D1+D3	D4+V1	C1+C3+I1 +D1+D3	I1+I3 +D1+D3	D4+V1	C1+C2+I1	C2+I1	D4+V1
	≤3	C3+I1 +D1+D3 <sup>(3)</sup>	I1+I3 +D1+D3	D4+V1	C1+C3+I1 +D1+D3 <sup>(2)</sup>	I1+I3 +D1+D3	D4+V1	C1+C2+I1	C2+I1	D4+V1
	≤4		I1+I3 +D1+D3	D4+V1		I1+I3 +D1+D3	D4+V1	C1+C2+I1	C2+I1	D4+V1
	≤5		I1+I3+D1 +D2+D3	D4+V1 <sup>(1)</sup>		I1+I3+D1 +D2+D3	D4+V1	C1+C2+I1	C2+I1	D4+V1

**I2:** Pintura iragazgaizgarri batekin edo I1 puntuan ezarritakoari jarraikiz egin behar da iragazgaizpena. Hondeaketa bidez eraikitako pantaila-hormetan, lohi bentonitikoak erabiliz lortzen da iragazgaizpena.

**D1:** Drainatze-geruza bat eta iragazte-geruza bat jarri behar dira hormaren eta lurraren artean, edo, iragazgaizpen-geruza bat dagoenean, haren eta lurraren artean. Drainatze-geruza modu batean baino gehiagotan egin daiteke: drainatze-xafla batez, legarrez, buztin porotsuzko bloke-fabrika batez edo funtzio bera betetzen duen beste material batez. Drainatze-geruza xafla bat denean, xaflaren goiko errematea babestu egingo da, prezipitazio-eta jariatze-urari sartzen ez uzteko.

**D5:** Horma kaltetu daitekeen estalkiaren eta lurraren zatietan, euri-ura husteko sare bat jarriko da, eta sare hori saneamendu-sarera edo ura berriz erabiltzeko jasotzen duen edozein sistematara konektatuko da.

### 2.2.5.2. ZORUAK

Lurrarekin kontaktua duten zoruei eskatzen zaien gutxieneko iragazgaiztasun-maila, lurreko eta jariatzeetako uraren aurkakoa, 2.3 taulan lortzen da, uraren presentziaren eta lurraren iragazkortasun-koefizientearen arabera.

2.3 taula  
Zoruek izan beharreko gutxieneko iragazgaiztasun-maila

Uraren presentzia	Lurraren iragazkortasun-koefizientea	
	$K_s > 10^{-5}$ cm/s	$K_s \leq 10^{-5}$ cm/s
Handia	5	4
Ertaina	4	3
Txikia	2	1

Horregatik, 2.4. Taularen arabera zoruak hurrengo baldintzak jarraitu behar ditu:

2.4 taula  
Zoruentzako irtenbideen baldintzak

		Horma flexoerresistentea edo grabitate-horma								
		Zoru goratua			Zolata			Plaka		
		Oinarri-azpia	Injekzioak	Esku-hartzerik gabe	Oinarri-azpia	Injekzioak	Esku-hartzerik gabe	Oinarri-azpia	Injekzioak	Esku-hartzerik gabe
Iragazgaitasun-maila	≤1		V1		D1	C2+C3+D1		D1	C2+C3+D1	
	≤2	C2		V1	C2+C3	C2+C3+D1	C2+C3+D1	C2+C3	C2+C3+D1	C2+C3+D1
	≤3	I2+S1+S3+V1	I2+S1+S3+V1	I2+S1+S3+V1+D3+D4	C1+C2+C3+D1+D2+S1+S2+S3	C1+C2+C3+D1+D2+S1+S2+S3	C2+C3+D1+D2+D3+C1+S1+S2+S3	C2+C3+D1+D2+D3+C1+S1+S2+S3	C1+C2+C3+D1+D2+D3+S1+S2+S3	C1+C2+D1+D2+S1+S2+S3
	≤4	I2+S1+S3+V1	I2+S1+S3+V1+D4		C2+C3+D1+D2+D3+S1+S2+S3	C2+C3+D1+D2+D3+S1+S2+S3	C1+C2+C3+D1+D2+D3+D4+S1+S2+S3	C2+C3+D1+D2+D3+S1+S2+S3	C2+C3+D1+D2+D3+S1+S2+S3	C1+C2+C3+D1+D2+D3+D4+S1+S2+S3
	≤5	I2+S1+S3+V1+D3	I2+P1+S1+S3+V1+D3		C2+C3+D1+D2+D3+S1+S2+S3	C2+C3+D1+D2+D3+S1+S2+S3	C1+C2+C3+D1+D2+D3+D4+S1+S2+S3	C2+C3+D1+D2+D3+S1+S2+S3	C2+C3+D1+D2+D3+S1+S2+S3	C1+C2+C3+D1+D2+D3+D4+S1+S2+S3

**C2:** Zorua in situ eraikitzen denean, uzkuertze txikiko hormigoia erabili behar da.

**C3:** Zorua hidrofugazio osagarri bat egin behar da, haren gainazal amaituaren gainean poroak betetzeko produktu likido bat emanez.

**D1:** Zorua azpiko luraren gainean drainatze-geruza bat eta iragazte-geruza bat jarriko dira. Drainatze-geruza gisa enkatxo bat erabiliz gero, polietileno-zko xafla bat jarri behar da haren gainean.

### 2.2.5.3. FATXADAK


Atal konstruktiboan azaldu da fatxaden itxitura sistema, SATE erabiliko da eta orain prezipitazioak ez sartzeko fatxadei eskatzen zaien gutxieneko iragazgaitasun-maila 2.5 taulan ezarriko da, eraikina dagoen tokiari dagokion batez bestekoen zona plubiometrikoaren eta haizearekiko esposizio-mailaren arabera.

2.6 taula  
Haizearekiko esposizio-maila

		Eraikinaren ingurune mota					
		E1 Zona eolikoa			E0 Zona eolikoa		
		A	B	C	A	B	C
Eraikinaren garaiera, m-tan	≤15	V3	V3	V3	V2	V2	V2
	16-40	V3	V2	V2	V2	V2	V1
	41-100 <sup>(d)</sup>	V2	V2	V2	V1	V1	V1

<sup>(d)</sup> 100 m baino garaiera handiagoko eraikintzat eta desubel handiko guneetatik hurbil dauden eraikintzat, EgS-EE oinarriko dokumentuan ezarritakoaren arabera aztertuko da haizearekiko esposizio-maila.

2.5 irudia  
Zona eolikoak




Kontutan izanda zona eolikoan eraikina 15m baino gutxiagoko altuera duela, V3 esposizio gradua du. Honi zona plubiometrikoaren parametroa gehitzen baldin bazaio, iragazgaitasun-maila minimoa 2.7. Taula ikusi ahal da 4 ateratzen dela.

2.5 taula  
Fatxadek izan beharreko gutxieneko iragazgaitasun-maila

		Batez bestekoen zona plubiometrikoa				
		I	II	III	IV	V
Haizearekiko esposizio-maila	V1	5	5	4	3	2
	V2	5	4	3	3	2
	V3	5	4	3	2	1

2.4 irudia

Urteko indize plubiometrikoaren araberrako batez bestekoen zona plubiometrikoak





2.7 taula  
Fatxadentzako irtenbideen baldintzak

		Kanpoko estaldurarekin				Kanpoko estaldurarik gabe			
Iragazgai-zasun-maila	≤1	R1+C1 <sup>(1)</sup>				C1 <sup>(1)</sup> +J1+N1			
	≤2								
	≤3	R1+B1+C1	R1+C2			B2+C1 +J1+N1	B1+C2 +H1+J1+N1	B1+C2 +J2+N2	B1+C1 +H1+J2+N2
	≤4	R1+B2+C1	R1+B1+C2	R2+C1 <sup>(1)</sup>		B2+C2+H1+J1+N1	B2+C2+J2+N2	B2+C1+H1+J2+N2	
	≤5	R3+C1	B3+C1	R1+B2+C2	R2+B1+C1	B3+C1			

<sup>(1)</sup> Fatxada orri bakarrekoa denean, C2 erabili behar da.

Proiektua proposatutako konposaketa aztertzen baldin bada, R1+B2+C1 motakoa da, beraz, hezetasunaren kontrako babesen baldintzak betetzen ditra.

#### 2.2.5.4. ESTALKIA

Estalkiek elementu hauek izan behar dituzte:

- a) malda eratzeko sistema bat: estalkia laua denean, edo inklinatua denean eta haren euskarri erresistentearen malda ez dagoenean erabiliko den babes eta iragazgaizte motara egokitua;
- b) lurrunaren kontrako hesi bat isolatzaile termikoaren azpi-azpian: «Energia aurrezte» oinarrizko dokumentuko HE1 atalean zehaztutako kalkuluaren arabera, elementu horretan kondentsazioak sortuko direla aurreikusten denean;
- c) geruza bereizle bat isolatzaile termikoaren azpian: material kimikoki bateraezinek elkar ukitzea eragotzi behar denean;
- d) isolatzaile termiko bat: «Energia aurrezte» oinarrizko dokumentuko HE1 atalean zehaztutakoari jarraikiz.
- e) geruza bereizle bat iragazgaizpen-geruzaren azpian: material kimikoki bateraezinek elkar ukitzea eragotzi behar denean edo iragazgaizpena eta sistema ez itsatsietako euskarri-elementuak itsastea saihestu behar denean;
- f) iragazgaizpen-geruza bat: estalkia laua denean edo inklinatua denean eta malda eratzeko sistemak ez duenean 2.10 taulan eskatutako inklinazioa edo babesgarriko piezen teilakatzea nahikoa ez denean;
- g) geruza bereizle bat babes-geruzaren eta iragazgaizpen-geruzaren artean, kasu hauetan:
  - i. bi geruzak itsastea saihestu behar denean;
  - ii. iragazgaizpenak puntzonaketa estatikoarekiko erresistentzia txikia duenean;

- iii. babes-geruza gisa honako hauek erabiltzen direnean: zoladura flotatzailea, euskarrien gainean bermatua; legarra, hormigoizko errodadura-geruza bat, morterozko edo landare-lurrezko geruza baten gainean jarritako aglomeratu asfaltikozko errodadura-geruza bat. Azken kasu horretan, gainera, geruza bereizlearen gain-gainean, drainatze-geruza bat jarri behar da, eta haren gainean, iragazte-geruza bat. Legarra erabiliz gero, geruza bereizleak puntzonaketen kontrakoa izan behar du;
- h) geruza bereizle bat babes-geruzaren eta isolatzaile termikoaren artean, kasu hauetan:
  - i. babes-geruza gisa landare-lurra erabiltzen denean; horrez gain, geruza bereizle horren gain gainean, drainatze-geruza bat jarri behar da, eta haren gainean, iragazte-geruza bat;
  - ii. estalkian oinezkoak ibil daitezkeenean; kasu horretan, geruza bereizleak puntzonaketen kontrakoa izan behar du;
  - iii. babes-geruza gisa legarra erabiltzen denean; kasu horretan, geruza bereizleak iragazlea izan behar du, agregakin finak pasatzen ez uzteko modukoa eta puntzonaketen kontrakoa;
  - i) babes-geruza bat, estalkia laua denean, iragazgaizpen-geruza autobabestua denean izan ezik;
  - j) teilatu bat, estalkia inklinatua denean, iragazgaizpen-geruza autobabestua denean izan ezik;
  - k) urak husteko sistema bat, erretenez, hustubidez eta gainezkabidez osatua egon daitekeena, OD-HO dokumentuko HO 5 atalean zehaztutako kalkuluaren arabera neurtua.

### 13.2. HO 2 oinarritzko eskakizuna: Hondakinak jasotzea eta ustea

Eraikinek behar diren guneak eta bitartekoak izango dituzte hondakin arruntak ateratzeko, hartarako sistema publikoarekin bat datorren moduan; erraztasunak emango dira hondakinak jatorrian egokiro bereizteko, gaika biltzeko, eta, ondoren, haiek kudeatzeko.

Eraikinaren bi etxebizitza bakoitzean edukiontzia egongo dira, jasoketa selektiboa errazten dutenak, geroago dagokion udal-edukiontzian usteko.

### 13.3. HO 3 oinarrizko eskakizuna: Barruko airearen kalitatea

1. Eraikinek bitartekoak izango dituzte beren esparruak behar bezala aireztatzeko, eraikinen erabilera normalean sortu ohi diren kutsatzaileak kanporatuz, halako moldez non kanpotik nahikoa aire iritsiko baita eta bermatuko baita kutsatzaileek usteldu duten airea atera eta kanporatuko dela.
2. Eraikinen barrualdeko eta kanpoaldeko (fatxadak eta patioak) airea kutsatzeko arriskua mugatzeko, instalazio termikoen errekontza-hondakinak, oro har, eraikinaren estalkitik kanporatuko dira, edozein dela ere erregai mota eta erabilitako gailua, eta, betiere, instalazio termikoei buruzko berariazko araudiari jarraituko zaio.

Honako hauek sartzen dira atal honen aplikazio-esparruan: etxebizitza-eraikinetan, haien barnealdeak, hondakinen biltegiak, trastelekuak, aparkalekuak eta garajeak.

Kontutan izanda bi etxebizitzak berdinak direla, soilik bat justifikatuko da, irizpide berdinak hartuta besterako. Etxebizitza bakoitza hiru logela du, beraz aireztapen emari minimoa gela bakoitzerako hurrengoak dira:

Logela nagusia: 8 l/s  
Gainerako logelak: 4 l/s  
Egon-gela: 10 l/s  
Gela hezetsuak: 33l/s

Emari hauek, etxebizitzetan eta berezko garajetan bermatzeko aireztapen naturala izango dute.

Sukaldetan erabilpen zehar sortzen diren hondakinen kanporaketa erraztu behar da, beraz, modu independentean aireztapen orokorrekiko. Modu honetan 50 l/s-ko emari minimoa gainditzen da.

### 13.4. HO 4 oinarrizko eskakizuna: Ur-hornidura

Eraikinek bitarteko egokiak izango dituzte aurreikusitako ekipamendu higienikoa ur edangarriz hornitzeko iraunkorki, ekipamenduaren funtzionamendua bermatzeko moduko emariz, uraren ezaugarriak aldatu gabe eta sarea kutsa lezaketen ur-itzulerak saihestuz, ur-emaria aurrezteko eta kontrolatzeko bitartekoak jarrita.

Metatze-sistemak dituzten ur beroa ekoizteko ekipoek, eta bukaerako erabilera-puntuek, germen patogenoak garatzea eragozteko moduko ezaugarriak izango dituzte.

2.1 taula  
Gailu mota bakoitzerako gutxieneko aldiuneko emaria

Gailu mota	Ur hotzaren gutxieneko aldiuneko emaria [dm <sup>3</sup> /s]	EUBaren gutxieneko aldiuneko emaria [dm <sup>3</sup> /s]
Eskuak garbitzeko konketa	0,05	0,03
Konketa	0,10	0,065
Dutxa	0,20	0,10
1,40 m edo gehiagoko bainuontzia	0,30	0,20
1,40 m baino gutxiagoko bainuontzia	0,20	0,15
Bideta	0,10	0,065
Komunontzi tangaduna	0,10	-
Komunontzi fluxometro duna	1,25	-
Txorrota tenporizatuko pixatokiak	0,15	-
Pixatoki tangadunak (c/u)	0,04	-
Etxeko harraska	0,20	0,10
Etxekoa ez den harraska	0,30	0,20
Etxeko ontzi-garbigailua	0,15	0,10
Ontzi-garbigailu industrialak (20 zerbitzu)	0,25	0,20
Garbitegia	0,20	0,10
Etxeko garbigailua	0,20	0,15
Garbigailu industrialak (8 kg)	0,60	0,40
Txorrota bakarra	0,15	0,10
Garajeko txorrota	0,20	-
Isurontzia	0,20	-

Ur hotza eta ur beroa kontabilizatzeko sistema bat jarri behar da indibidualiza daitekeen kontsumo unitate bakoitzarentzat.

Uraren instalazioa polipropileno edo polietileno materialezko hoditeriarekin burutuko da.

Oro har, edateko uraren instalazioetan erabiliko diren material guztiek eskakizun hauek bete behar dituzte:

- giza kontsumorako urei dagokien legedian zehaztutakoa bete behar dute erabilitako produktu guztiek;
- ez dituzte aldatu behar, ez hornitutako uraren ezaugarri organoleptikoak, ez haren osasungarritasuna;
- barne-korrosioarekiko erresistenteak izan behar dute;
- aurreikusitako zerbitzu-baldintzetan behar bezala funtzionatzeko ahalmena izan behar dute;
- ez dute elkarren arteko bateraezintasun elektromagnetikorik izan behar;
- erresistenteak izan behar dute, inolako kalterik edo hondatzerik jasan gabe, 40 °C-  
rainoko tenperaturekiko eta haien ingurune hurbileko kanpoko tenperaturekiko.
- garraiatu eta eduki beharreko urarekin bateragarriak izan behar dute, eta ez dute erraztu behar materialen substantziak migratzea giza kontsumoko uraren osasungarritasuna eta garbitasuna arriskuan jartzeko moduko kantitatean;
- haien zahartzeak, nekeak, iraunkortasunak eta edozein motatako ezaugarri mekaniko, fisiko edo kimikoek ez dute murriztu behar instalazioari aurreikusitako bizitza baliagarria.

### 13.5. HO 5 oinarrizko eskakizuna: Urak ustea

Eraikinek bitarteko egokiak izango dituzte sortutako hondakin-urak kanporatzeko, prezipitazio atmosferikoekin eta jariatzeekin batera edo bereiz.

Instalazioa hurrengo ezaugarriak izan behar ditu:

- a) Instalazioaren barruan dagoen airea lokaletara pasatzen ez uzteko itxitura hidraulikoak jarri behar dira instalazioan, eta hondakinen emariari eragin gabe egin behar da.
- b) Ura husteko sareko hodiekin ahalik eta ibilbide sinpleena izan behar dute, hondakinak aise husteko distantziak eta maldak izango dituzte eta autogarbigarriak izango dira. Saihestu egin behar da barnean ura atxikitzea.
- c) Aurreikus daitezkeen emariak kondizio seguruetan garraiatzeko egokiak izan behar dute hodian diametroak.
- d) Mantentze- eta konponketa-lanetarako erraz iristeko modukoak izan daitezkeen diseinatuko dira hodi-sareak; hori dela eta, agerian jarri behar dira, edo irekiguneetan edo patio txiki erregistragarrietan. Bestela, kutxatila edo erregistroak izan behar dituzte.
- e) Itxitura hidraulikoen funtzionamendua eta gas mefitikoen ebakuazioa ahalbidetzen duten aireztapen-sistema egokiak jarriko dira.
- f) Instalazioa ezin da erabili hondakin- edo euri-urez besteko hondakin motak husteko.

### 2.3.3. HE-SS. SUTEETATIK BABESTEKO SEGURTASUNA

#### 11. artikulua. Suteetatik babesteko segurtasunaren (SS) oinarrizko eskakizunak

«Suteetatik babesteko segurtasuna» oinarrizko eskakizunaren helburua da eraikin baten proiektu, eraikuntza, erabilera eta mantentze-lanen ezaugarrien ondorioz erabiltzaileek ustekabeko sute batek eragindako kalteak nozitzeko arriskua maila onargarri batera murriztea.

Helburu hori betetzeko, suteetatik babesteko ondoko ataletan zehazten diren oinarrizko eskakizunak betetzeko moduan proiektatuko, mantenduko eta erabiliko dira eraikinak.

SS oinarrizko dokumentuak zehazten du zer parametro objektibo eta prozedura betetzeak ziurtatzen duen oinarrizko eskakizunak betetzea eta suteetatik babesteko oinarrizko segurtasun-eskakizunari dagokion gutxieneko kalitate-maila gainditzea, salbu «Establezimendu industrialetan suteetatik babesteko segurtasun-araudia» aplikatzen diren erabilera industrialeko eraikinen, lokalen eta guneen kasuan.

##### 11.1. SS 1 oinarrizko eskakizuna - Barrutik hedatzea

Sutea eraikinaren barrualdetik hedatzeko arriskua mugatu egingo da.

##### **1. Sute-sektoretan banatzea**

Sekzio honetako 1.1 taulan zehaztutako baldintzen arabera banatu behar dira eraikinak sute-sektoretan. Kasu honetan, eraikinaren aurreikusitako erabilera Etxebizitza-erabilera da, beraz, sute-sektore ororen azalera eraikia ezin da izan 2.500 m<sup>2</sup> baino handiagoa. Orduan, sektore-banaketa hurrengo moduan egin da:

- SEKTORE 1 ( A etxebizitza) = 173,14 m<sup>2</sup>
- SEKTORE 2 ( B etxebizitza) = 173,14 m<sup>2</sup>

##### **SUTE SEKTOREEN BANAKETA-ELEMENTUEN ERRESISTENTZIA**

Etxebizitzak elkarrengatik bereizten dituzten elementuek gutxienez EI 60 izan behar dute. 1.2 Taularen arabera, lurzoru-mailatik behera dauden elementuak EI 120 dagokie eta lurzoru-mailatik gorako elementuei EI 60, 15 metro baino gutxiagoko altuera duelako eraikina.

**1.2 taula**  
Sute-sektoreak bereizten dituzten hormek, sabaiek eta ateen suaren aurka duten erresistentzia<sup>(1)(2)</sup>

Elementua	Suaren aurkako erresistentzia			
	Lurzoru-mailatik beherako solairuak	Lurzoru-mailatik gorako solairuak ebakuazio-garaiera duen eraikinean:		
		h ≤ 15m	15 < h ≤ 28m	h > 28m
Aztertutako sektorea eta eraikinaren gainerako zatiak banatzen dituzten hormak eta sabaiek <sup>(3)</sup> , <i>aurreikusitako erabilera</i> hau dutelarik: <sup>(4)</sup>				
• <i>Arrisku txikiko sektorea</i> , edozein erabilerratako eraikinetan	(ez da onartzen)	EI 120	EI 120	EI 120
• Etxebizitza-erabilera, bizitegi-erabilera publikoa, irakaskuntza-erabilera eta administrazio-erabilera	EI 120	EI 60	EI 90	EI 120
• Merkataritza-erabilera, elkargune publikoa, ospitale-erabilera	EI 120 <sup>(5)</sup>	EI 90	EI 120	EI 180
• <i>Aparkaleku-erabilera</i> <sup>(6)</sup>	EI 120 <sup>(7)</sup>	EI 120	EI 120	EI 120
<i>Sute-sektore</i> batetik bestera igarotzeko atek	EI <sub>2</sub> t-C5, t izanik dagoen hormari eskatzen zaion <i>suarekiko erresistentzia</i> -denboraren erdia, edota laurdena, baldin eta igarobideak <i>bereizte-atarte</i> bat eta bi ate baditu.			

## 2. Arrisku bereziko lokalak eta gunek

Eraikinetan integratutako arrisku bereziko lokalak eta gunek hiru mailatan sailkatzen dira: arrisku handikoak, arrisku ertainekoak eta arrisku txikikoak, 2.1 taulan ezarritako irizpideei jarraikiz. Hala sailkatutako lokal eta gunek 2.2 taulan ezarritako baldintzak bete behar dituzte.

Berariazko arauen bidez araututako instalazioak eta ekipoak (hala nola transformadoreak, igogailuen makineria, galdarak, erregai-andelak, gas- edo elektrizitate-kontagailuak eta abar) barnean hartzeko diren lokalek, gainera, berariazko arauok ezarritako baldintzak ere bete behar dituzte. Araudi horrek lokalak eta ekipoak aireztatzeko ezartzen dituen kondizioak bateragarri egin behar dira OD honek ezarritako banaketa-kondizioekin.

Gure eraikinean garajeen solairua inguru arriskutsua da, barnean autok daudelako eta 100 m<sup>2</sup> ez duelako gainditzen.

## 3. Eremu ezkutuek. Instalazioen sute-banaketako elementuak zeharkatzea

Ez daude.

## 4. Eraikuntza-, dekorazio- eta altzari-elementuen suarekiko erreakzioa

Eraikuntza-elementuek 4.1 taulan ezarritako suarekiko erreakzioari dagozkion baldintzak bete behar dituzte.

4.1 taula  
Eraikuntza-elementuen suarekiko erreakzio motak


Elementuaren kokalekua	Estandurak <sup>(1)</sup>	
	Sabai eta hornenak <sup>(2)(3)</sup>	Zoruenak <sup>(2)</sup>
Gune erabilgarriak <sup>(4)</sup>	C-s2,d0	EFL
Korridore eta eskailera babestuak	B-s1,d0	CFL-s1
Aparkalekuak eta arrisku bereziko esparruak <sup>(5)</sup>	B-s1,d0	BFL-s1
Eremu ezkutu ez-estankoak, hala nola patio txikiak, sabai aizumak eta zoru goratuak (etxebizitzaren barruan daudenak izan ezik), edota estankoak izan eta sute bat pizaraz edo hedaraz dezaketen instalazioak dituztenak	B-s3,d0	B <sub>FL</sub> -s2 <sup>(6)</sup>

## 11.2. SS 2 oinarritzko eskakizuna - Kanpotik hedatzea

Eraikin baten kanpoaldetik sutea eraikinerara bertara nahiz inguruko eraikinetara hedatzeko arriskua mugatu egingo da.

### 2.3.3.1. FATXADA

Fatxadan barrena sutea horizontalki kanpotik hedatzeko arriskua mugatzeko —bai bi sute-sektoreen artean, bai arrisku berezi handiko gune baten eta beste gune batzuen artean, bai beste gune batzuetatik eskailera babestu edo korridore babestu baterantz—, gutxienez jarraian adierazten den  $d$  distantzia batek bereizi behar ditu  $EI$  60 baino gutxiago diren haien fatxadetako guneak, proiektio horizontalean, fatxada horien kanpoko planoek eratutako  $\alpha$  angeluaren arabera (ikus 1.6 irudia). Angelu horren bitarteko balioentzat, interpolazio lineal bidez lor daiteke  $d$  distantzia.



### 2.3.3.2. ESTALKIA

Estalkian barrena sutea kanpotik hedatzeko arriskua mugatzeko, izan elkarren ondoan dauden bi eraikinen artean, izan eraikin berean,  $REI$  60 suaren aurkako erresistentzia izango du eraikinak.

## 11.3. SS 3 oinarritzko eskakizuna - Erabiltzaileak ebakuatzea

Eraikinak ebakuazio-bide egokiak izango ditu erabiltzaileak eraikinetik ateratzeko edota segurtasun baldintzetan eraikinaren barruko toki seguru batera iristeko.

Okupazioa kalkulatzeko, 2.1 taulan agertzen diren okupazio-dentsitatearen balioak hartu behar dira, gune bakoitzaren azalera erabilgarriaren arabera kalkulatu direnak, salbu okupazio handiagoa aurreikus daitekeenean edo nahitaez bete beharreko legeren batek hala aginduta okupazio txikiagoa eska daitekeenean; hala gerta daiteke, esate baterako, hotelen, ikastetxeen, ospitaleen eta abarren kasuan. Taulan agertzen ez



diren esparruei edo guneei, erabilera parekagarrienei dagozkien balioak aplikatu behar zaizkie.

Okupazioa zehazterakoan, kontuan hartu behar da eraikin bateko gunek, jarduera-erregimenaren eta aurreikusitako erabileraren arabera, aldi berean ala aldizka erabiltzekoak diren.

2.1 taula  
Okupazio-dentsitateak<sup>(1)</sup>

Aurreikusitako erabilera	Gunea, jarduera-mota	Okupazioa (m <sup>2</sup> /pertsonako)
Edozein	Noizbehinka okupatzen diren gunek, mantentze-lanak egiteko soilik erabil daitezkeenak: Makina-gelak, garbiketara-materialentzako lokalak eta abar Solairuko komunak	Okupaziorik gabe 3
<b>Etxebizitza-erabilera</b>	<b>Etxebizitzetako solairuak</b>	<b>20</b>
<i>Bizitegi-erabilera publikoa</i>	Ostatu emateko gunek Erabilera anitzeko egongelak Sotoetan, beheko solairuetan eta tarteko solairuetan jendeak erabiltzeko atarte eta gune orokorrak	20 1 2
Aparkaleku-erabilera <sup>(2)</sup>	Ordutegiak dituzten jardueren loturikoa: salerosketa, ikuskizunak, bulego-lanak eta abar Beste kasu batzuetan	15 40

Orduan, etxebizitza bakoitza 106,33 m<sup>2</sup> ditu bi solairuen artean. Beraz, 20 m<sup>2</sup>/pertsona parametroaren bidez, 5,32 pertsonako okupazioa ateratzen da.

3.1 taulan adierazten da kasu bakoitzean gutxienez zenbat irteera egon behar duten eta haietaraino heltzeko ebakuazio-ibilbideek zer luzera izan behar duten, beraz, irteerara bakarra egon behar da gutxienez solairu bakoitzean.

Gune batek, esparru batek, solairu batek edo eraikin batek irteera bat baino gehiago izan behar duen kasuetan (irteeratzat jotzen dira nahitaez pasatu beharreko igaro gunek ere), erabiltzaileak nola banatu behar diren kalkulatzeko, irteeretako bat erabili ezin dela pentsatuz jokatu da, hipotesirik kaltegarriena aintzat hartuz.

Eskaileren kasuan, berdina gertatuko zen, baina eraikin honetan soilik eskailera bide bakarra dago, beraz, ezin da hipotesirik egin. Izan ere, araudiaren arabera dauden eskailerak ez dute gainditzen beharako ebakuazio distantzia (14m).

Ingurua, solairua sektorea	Erabilpena	Azalera erabilgarria (m <sup>2</sup> )	Okupazio dentsitatea (m <sup>2</sup> /pertsona)	Okupazioa (pertsona)	Irteera kopurua		Ebakuazio bidea (m)		Irteeren zabalera	
					No.	Pr.	No.	Pr.	No.	Pr.
A/B etxebizitza	Bizilekua	106,33	5,32	5,32	1	2	25	17	>0,8	0,9

#### 11.4. SS 4 oinarrizko eskakizuna - Suteetatik babesteko instalazioak

Eraikinak ekipo eta instalazio egokiak izango ditu sutea detektatzeko, kontrolatzeko eta itzaltzeko eta orobat biztanleei alarma jakinarazteko.

Eraikinek 1.1 taulan zehaztutako suteetatik babesteko ekipoak eta instalazioak izan behar dituzte. Instalazio horien diseinuak, gauzatze-lanak, martxan jartzeak eta mantentze-lanek, eta, orobat, haien materialek, osagaiek eta ekipoek bete beharrekoa dute «Suteetatik Babesteko Instalazioen Araudia »n.

1.1 taula (jarraipena)  
Suteetatik babesteko instalazioak jartzea

<i>Eraikinarentzat edo establezimenduarentzat aurreikusitako erabilera</i> Instalazioa	Baldintzak
<i>Etxebizitza-erabilera</i> Tutu lehorra <sup>(6)</sup> Detekzio-sistema eta sute-alarma Kanpoko sute-ahokak	<i>Ebakuazio-garaiera</i> 24 m baino gehiagokoa bada. <i>Ebakuazio-garaiera</i> 50 m baino gehiagokoa bada. <sup>(7)</sup>  Azalera eraiki totala 5.000-10.000 m <sup>2</sup> bitartekoa denean, bat Gehitzen den 10.000 m <sup>2</sup> edo frakzio bakoitzeko, beste bat. <sup>(4)</sup>

Ez dira gainditzen ezarritako hiru baldintzak, beraz, ez da instalaziorik egin behar. Hala ere, su-itzalgailuak instalatuko dira solairuko 15 metro bakoitzeko bidean.

#### 11.5. SS 5 oinarrizko eskakizuna - Suhiltzaileen lana

Erraztasunak emango dira salbamendu-taldean eta suhiltzaileen lanerako.

#### **Eraikinetara hurreratzea**

Suhiltzaileen ibilgailuak 1.2 puntuak zehaztutako maniobra-guneetara hurreratzeko bideek baldintza hauek bete behar dituzte:

- gutxieneko zabalera librea 3,5 m;
- gutxieneko garaiera librea edo galiboa 4,5 m;
- bidearen sostengu-ahalmena 20 kN/m<sup>2</sup>.

#### **Eraikinen ingurunea**

Beheranzko ebakuazio-garaiera 9 m baino handiagoa duten eraikinek suhiltzaileek maniobrak egiteko tokia izan behar dute. Toki horrek, sarbideak dauden fatxadan, edo eraikinaren barnealdean, edo sarbideak dauden barnealdeko gune irekian, 1.2. Atalaren baldintzak behar dira.

Maniobrak egiteko tokian ez da hiri-altzari, zuhaitz, lorategi, mugarri edo bestelako oztoporik egongo. Era berean, fatxada batera sartzeko eskailera edo plataforma hidraulikorik aurre-ikusten bada, saihestu egingo da eskailerei traba egin diezaieketen elementurik izatea, hala nola aireko kable-elektrikoak, zuhaitz-adarrak eta abar.

Gutxieneko zabalera minimoa		Altuera librea		Ibilgailuen eta eraikinaren distantzia (m)		Gehienezko distantzia		Gehienezko malda		Zoruak puntzonarekiko erresistentzia	
Norma	Proi.	Norma	Proi.	Norma	Proi.	Nor.	Proi.	Nor.	Proi.	Norma	Proi.
5	5	11	11	23	23	30	20	10	10	100 kN,20 cm gain	100 kN,20 cm gain

### 11.6. SS 6 oinarrizko eskakizuna - Egiturak suaren aurka duen erresistentzia

Aipaturiko oinarrizko eskakizunak betetzeko behar den beste denbora eutsiko dio sostengu-egiturak suaren aurka erresistentzia izateari.

11.6. SS-ko 3.1 Taularen arabera sektoreek hurrengoko suarekiko erresistentzia izan behar dute, etxebizitza bakoitza sektore bakarrez osatuta daude.

#### Sektore 1 ( A etxebizitza)

- Sektorearen erabilpena: Etxebizitza unifamiliarra
- Solairu motak: Lurzoru-mailatik beherako solairu 1 + lurzoru-mailatik gorako solairu 2 (Ebakuazio altuera  $h < 15m$ )
- Suarekiko erresistentzia: R 30

Eraikinaren egitura hormigoi armatuko euskarriz eta forjaketa losa indartuarekin egingo da.

Suarekiko ikusgai dauden aurpegiak eta armaduren ardatzak 25 mm-ko distantzia baino gehiagora egongo dira.

## 2.3.4. HE-ESI. ERABILERAREN SEGURTASUNA ETA IRISGARRITASUNA

### 12. artikulua. Erabileraren segurtasunaren (ESI) oinarrizko eskakizunak

«Erabileraren segurtasuna eta irisgarritasuna» oinarrizko eskakizunaren helburua da maila onargarri batera murriztea eraikinen proiektu, eraikuntza, erabilera eta mantentze-lanen ezaugarrien ondorioz, aurreikusitako erabileran, erabiltzaileek berehalako kalteak nozitzeko arriskua, eta, orobat, eraikinetara iristeko eta haien erabiltzeko aukera ematea desgaitasunen bat duten pertsonen, bereizkeriarik gabe eta modu independente eta seguruan.

Helburu hori betetzeko, ondoko ataletan zehazten diren oinarrizko eskakizunak betetzeko moduan proiektatuko, mantenduko eta erabiliko dira eraikinak.

«ESI Erabileraren Segurtasuna eta Irisgarritasuna» oinarrizko dokumentuak zehazten du zer parametro objektibo eta prozedura betetzeak ziurtatzen duen oinarrizko eskakizunak betetzea eta erabileraren segurtasunaren eta irisgarritasunaren oinarrizko betekizunari dagokion gutxienezko kalitate-maila gainditzea.

#### 12.1. ESI 1 oinarrizko eskakizuna: Erortzeko arriskutik babesteko segurtasuna

Mugatu egingo da erabiltzaileen erortzeko arriskua; horretarako, zoruak egokiak izango dira, pertsonen irrist edo estropezu egin ez dezaten eta mugitzeko zailtasunik izan ez dezaten. Halaber mugatuko da irekiguneetan, maila-aldaketetan, eskaileretan eta arrapaletan erortzeko arriskua, eta erraztu egingo da kanpoko beirak segurtasunez garbitzeko modua.

#### Zoruen lerrakortasuna

Irristaden ondorioz erortzeko arriskua mugatzeko helburuarekin, etxebizitzan 1 motako zoladura burutu behar da, malda %6 baino txikiagoa duen gainazala izanik.

1.2 taula  
Zoru mota, kokalekuaren arabera

Zorua dagoen tokia eta ezugarriak	Mota
Barnealdeko toki lehorrak	
• malda % 6 baino txikiagoa duten gainazalak	1
• malda % 6 edo handiagoa duten gainazalak eta eskailerak	2
Barnealdeko gune hezeak, hala nola kanpoaldetik eraikinetara sartzeko sarrerak <sup>(1)</sup> , terraza estaliak, aldagelak, bainugelak, komunak, sukaldeak eta abar.	
• malda % 6 baino txikiagoa duten gainazalak	2
• malda % 6 edo handiagoa duten gainazalak eta eskailerak	3
Kanpoaldeko guneak. Igerilekuak <sup>(2)</sup> . Dutzak.	3

<sup>(1)</sup> Erabilera muganiko guneetara zuzenean sartzeko sarreraren kasuan izan ezik.

<sup>(2)</sup> Erabiltzaileek oinarrizko ibiltzeko guneetan eta ontzien hondoan, 1,50 m-ko sakonera gainditzen ez duten guneetan.

Inguru hezetsuetan 2 motako zoladura egin behar da.

1.1 taula  
Zoruen sailkapena lerrakortasunaren arabera

Lerratzearerikiko erresistentzia $R_d$	Mota
$R_d \leq 15$	0
$15 < R_d \leq 35$	1
$35 < R_d \leq 45$	2
$R_d > 45$	3

Proiektatutako zoladurak hormigoi leunetaz garajeen eta gres ez-labaingarri sotoaren gainerako ingurunean. Etxebizitzaren solairuak haritzazko gaineko oholtzaren bitartez zolatuko dira, poliestirenozko isolamendu termo akustiko lamina gainean etxearen ingurunean, eta alde hezetsuentzako gresezko baldosa erabili da.

### Zoladuretako etenak

Baldintza hauek bete behar ditu zoruak:

- a) Ez du 4 mm baino irtengune handiagoko junturarik izango. Zoladuraren mailatik irteten diren elementu puntual eta txikiak (adibidez, ateen kisketa-zuloak) ezin dute zoladuratik 12 mm baino gehiago irten, eta pertsonen zirkulazio-noranzkoaren aurrez aurreko aldeetan 6 mm baino gehiago irteten den irtenguneak ezin du zoladurarekin 45° baino gehiagoko angelua eratu;
- b) Desnibela, 50 mm baino handiagoa ez denean, % 25eko malda gaindituko ez duen malda batekin konponduko da;
- c) Pertsonen zirkulaziorako guneetan, zoruak ezin du izan 1,5 mm diametroko esfera bat sartzeko moduko zulo edo irekigunerik.

Zirkulazio-guneak mugatzeko hesiak jartzen direnean, 80 cm-ko garaiera izango dute gutxienez.

Zirkulazio-guneetan ezin da jarri eskailera-maila bakarra, ezta elkarren segidako bi ere, honako kasu hauetan izan ezik:

- a) erabilera mugatuko guneetan;
- b) etxebizitza-erabilerako eraikinetako gune komunetan;
- c) eraikinetako sarreretan eta irteeretan;
- d) oholtza edo agertoki baterako bidean.

Proiektatutako zoladurak aipatutako irizpideak betetzen dituzte.

### Desnibelak

Fatxaden hutsuneak 1,1 metroko garaiera izango dute, bete ezin diren kasuetan leihoen babeserako hesiak instalatuko dira.

Modu berean, eskaileren hutsunetan 1,1 metroko garaiera minimoa duen hesia instalatuko da. Berez, 10 cm diametroko esfera batek zeharka dezakeen irekidurarik ez izatea, salbu barandaren beheko mugaren eta eskailera-mailen arteko mailagaina eta kontramaila eratzen duten irekidura triangeluarrak, baldin eta muga horren eta eskaileraren inklinazio-lerroaren arteko distantzia ez bada 5 cm baino handiagoa

## Eskailerak eta arrapalak

Atal zuzenetan, mailagainak 28 cm izango ditu gutxienez. Atal zuzen edo kurbatuetan, kontramaila gutxienez 13 cm-koa izango da, eta gehienez 18,5 cm-koa. Eskaileran zehar mailagaina (H) eta kontramaila (C) hurrengo baldintza beteko dute,  $54 \text{ cm} \leq 2C + H \leq 70 \text{ cm}$ .

## Kanpoko beiren garbiketa

Etxebizitzen beirak errez garbigarriak dira, beraz, atal honen irizpideak betetzen dira.

## 12.2. ESI 2 oinarritzko eskakizuna: Kolperen bat hartzeko edo harrapatuta geratzeko arriskutik babesteko segurtasuna

Mugatu egingo da erabiltzaileak eraikineko elementu finko nahiz mugikorrek kolperen bat hartzeko edo harrapatuta geratzeko arriskua.

## Kolpeak

Zirkulazio-guneetan, pasatzen uzteko garaiera librea gutxienez 2,10 m izango da erabilera mugatuko guneetan, eta 2,20 m gainerako guneetan, kasu honetan 2,6 metroko garaiera minimoa du.. Ateen atalasetan, garaiera librea 2m baino gehiago izan behar da, gure kasuan 2,1 metrokoa da, gutxienez.


Ondorengo 2. puntuan —gainazal beiratzatuei buruzkoan— adierazten diren kolpe-arriskuko guneetan dauden beirek, ES 1 ataleko 3.2 zatiaren arabeko babes-hesirik ez dutenean, X(Y)Z motako prestazioak izango dituzte, UNE EN 12600:2003 arauari jarraikiz, eta haien parametroek 1.1 taulan ezarritakoa beteko dute. Ez dira baldintza horretan sartzen neurri handiena 30 cm-tik gorakoa ez duten beirak.

1.1 taula  
X(Y)Z parametroen balioa kota-desberdintasunaren arabera

Gainazal beiratzatuaren bi aldean arteko kota-desberdintasuna	X	Y parametroen balioa	Z
12 m baino handiagoa	edozein	B edo C	1
0,55 m-tik 12 m-ra bitartekoa	edozein	B edo C	1 edo 2
0,55 m baino txikiagoa	1, 2 edo 3	B edo C	edozein

Honako toki hauetan dago kolpe-arriskua (ikus 1.2 irudia):

- ateetan, zoru-mailatik 1,50 m-ko garaiera bitarteko zatian, atea gehi haren alde banatako 0,30 m-ko zabaleran;
- hormataletan, zoru-mailatik 0,90 m-ko garaiera bitarteko zatian.



### 12.3. ESI 3 oinarritzko eskakizuna: itxita geratzeko arriskutik babesteko segurtasuna

Mugatu egingo da erabiltzaileak nahi gabe esparruetan itxita geratzeko arriskua.

Esparru bateko ateek barrutik blokeatzeko gailua dutenean eta jendea nahi gabe barruan harrapatuta geratzeko arriskua dagoenean, ateeak esparruaren kanpoaldetik desblokeatzeko sistemaren bat egongo da. Etxebizitzetako bainugeletan edo komunetan izan ezik, halako esparruek argiztapen barrutik kontrolatua izango dute.

Irteerako ateen irekitze-indarra 140 N izango da, gehienez, kasu honetan ez da 100 N gainditzen.

### 12.4. ESI 4 oinarritzko eskakizuna: Argiztapen desegokiak eragindako arriskutik babesteko segurtasuna

Mugatu egingo da eraikinetako barruko zein kanpoko igarobideetan argiztapen desegokia izatearen ondorioz pertsonen kaltea eragiteko arriskua baita larrialdietan edota argiztapen arruntak huts egiten duenean ere.

Irteerak non dauden adierazten duten ebakuazio-seinaleen argiztapenak eta suteen kontrako eskuzko babes-baliabideak eta lehen laguntzako baliabideak non dauden adierazten duten seinaleen argiztapenak betekizun hauek bete behar dituzte:

- a) Seinalearen segurtasun-kolorearen edozein alderen luminantzia  $2 \text{ cd/m}^2$ -koa izango da gutxienez, ikus-norabide garrantzitsu guztietan;
- b) Segurtasun-kolorearen edo zuriaren barruan, gehienezko luminantziatik gutxienerako erlazioa ez da izango 10:1 baino handiagoa, eta ez du aldaketa handirik izan behar ondoz ondoko puntuen artean;
- c)  $L_{\text{zuri}}$  luminantzia eta  $L_{\text{kolore}} > 10$  luminantziaren arteko erlazioa ez da izango ez 5:1 baino txikiagoa, ez 15:1 baino handiagoa;
- d) Segurtasun-seinaleak, 5 segundoren buruan, eskatutako iluminantziaren % 50ean argiztatuko dira gutxienez, eta 60 segundoren buruan, % 100ean.

### 12.5. ESI 5 oinarrizko eskakizuna: Jendetza biltzen den egoerek eragindako arriskutik babesteko segurtasuna

Mugatu egingo da jendetza biltzen deneko egoerek eragindako arriskua, pertsonen zirkulazioa erraztuz eta jendea zanpatuta geratzeko arriskua saihestuz, babes-eta euste-elementuekin sektoreak banatuta.

### 12.6. ESI 6 oinarrizko eskakizuna: Itotzeko arriskutik babesteko segurtasuna

Mugatu egingo da igerilekuetan, ur-biltegietan, putzuetan eta halakoetan erortzeko eta itotzeko arriskua, sarbidea mugatuko duten elementuen bidez.

### 12.7. ESI 7 oinarrizko eskakizuna: Mugitzen ari diren ibilgailuek eragindako arriskutik babesteko segurtasuna

Mugatu egingo da mugitzen ari diren ibilgailuek eragindako arriskua, kontuan hartuz zoladura motak eta ibilgailuen eta pertsonen zirkulazio guneen seinaleztapena eta babesa.

### 12.8. ESI 8 oinarrizko eskakizuna: Tximistek eragindako arriskutik babesteko segurtasuna

Mugatu egingo da tximisten ondorioz elektrokatatzeko edo sutea pizteko arriskua, tximisten kontrako babes-instalazio egokien bidez.

### 12.9. ESI 9 oinarrizko eskakizuna: Irisgarritasuna

Eraikinetara sartzeko eta haiek erabiltzeko aukera emango zaie desgaitasunen bat duten pertsoneri, bereizkeriarik gabe eta modu independente eta seguruan.



### 2.3.5. SANEAMENDU SAREAK

Ur- eta hondakin-sare horizontala osatzen duten instalazioa da.

Bereizketa sistemara moldatuko den bidea izango da, azkenik dagokion udal-erregistro putxurarekin batuko dira sare bakoitza.

Sare hoditerien diametroak NTE-ISS taulen arabera erabakiko dira.

### 2.3.6. ZARATAREN KONTRAKO BABESA

«Zarataren kontrako babesa» oinarritzko betekizunaren bitartez, mugatu egiten da, eraikinen barrualderako eta erabilera-baldintza normaletarako, eraikinen proiektu, eraikuntza, erabilera eta mantentze-lanen ondorioz zaratak erabiltzaileei eragozpenak eta gaixotasunak eragiteko arriskua.

Zenbait produktu likido eta solido erabili behar dira hormigoia ezaugarri mekanikoak eta beste propietateak betetzeko. Masa egitean gehitzen zaie, produktu hauen bitartez, gogortasuna, plastizitate edo beste ezaugarriak hobetuko dira.

Eraikina egiteko fluidizatzaileen erabilera baimentzen da **UNE EN 934-2:2010+A1:2012** araudian adierazita dagoen bezala. Araudiaren arabera %0,3 eta %0,6 zementuaren pisua fluidizatzaile izan ahal da, masaren jariakortasuna lortzeko. Hauen erabilpenerako obraren zuzendariak baimena beharko da, ahoz zein idatziz.

Beti errespetatu beharko da hurrengo limiteak:

- Ez da onartuko ez kloruro, ez sulfato, ez hormigoia erabiltzeko kaltegarria den beste gehigarririk. **EHE-08** araudiak onartzen dituen gehigarriak bakarrik erabiliko dira.
- Abiadura irabazteko kloruro kaltzioa erabiltzen bada, zementuaren pisuaren baino %2 baino gutxiago izan beharko da, hormigoia erabiltzeko tenperatura baxuetan badago, %3,5 baimentzen da.
- Airearen kentzeko gehigarriak erabiltzen badira, konpresio indarra gehienez %20 txikitu behar da. Kontuan izanik erabili ahal den gehigarri pisua zementuaren %4 izan ahal dela gehienez.

- Koloratzaileak erabiltzen diren kasuetan, zementuaren %10 baino gutxiago izan beharko da. Koloratzaile organikoa ez dira baimentzen.

Hormigoiketa egiten hasi aurretik hormigoiaaren saiakuntzak egingo dira **EHE-08** arauan zehaztuta dagoenaren arabera.

#### 5.2.1.4. ZEMENTUA

Erabiliko den zementua RC-97 “Zementuaren Onarpenerako Preskripzio Tekniko Orokorren Plegua” erabiliko da.

Aukeratutako zementua, RC-97 pleguan mortero eta hormigoizko baldintzak bete behar ditu. Hornitutako partida bakoitzaren onarpena lortu behar da lanean hasi aurretik. Prozesua errepikatu beharko da hornikuntza-baldintzak aldatze direnean, hiru hilabetero obra hasten denetik eta obrako zuzendaritza fakultatiboak agintzen duen bakoitzean.

Laginak 16kg-koak izango dira, bi ontzi estankoetan banatuta eta horietako bat gutxienez 100 egun egon beharko da obran.

EHE-08 arauaren arabera zementu hormigoia obra-tokian egiten denean hurrengo araudia bete beharko du:

- Fraguatuaren hasiera eta bukaera, **UNE- EN 196-3:2009 (S / EHE)**
- Bolumenaren egonkortasuna, **UNE- EN 196-3:2009 (S / EHE)**
- Erreketako galera, **UNE- EN 196-2:2006 (S / EHE)**
- Hondakin disolbaezina, **UNE- EN 196-2:2006 (S / EHE)**

#### 5.2.1.5. ZEMENTU AGLOMERATZAILEAK

##### 5.2.1.5.1. Karea

Kare sorta bakoitzean egiaztatu beharko da enbasean agertzen den ekoizlea eta kare motaren izena. Produktua itxita ailegatu behar da, bestela atzera botako da.

Obra hasterakoan karean hurrengo ezaugarriak zehaztuko dira:

- Bolumenaren egonkortasuna, **UNE 80121:2014.**
- Fragua-denborak, **UNE-EN 459-2:2011.**
- Analisi kimikoa, **UNE-EN 459-2:2011.**
- Ehotze-fintasuna, **UNE-EN 459-2:2011.**

Kare sorta bakoitzean egiaztatu beharko da enbasean agertzen den ekoizlea eta kare motaren izena. Produktua itxita ailegatu behar da, bestela atzera botako da.

Hedapenaren ondorioz ezin du aurkeztu zartadurarik, kopadurarik edo desintegraziorik **UNE 80121:2014** arauak definitzen duen saiakuntza aplikatzen zaionean.

Bete behar dituen beste baldintzak:

- Pisu espezifikoa 2,5 eta 2,8 artean egongo da.
- Dentsitatea 0,8 baino handiagoa izango da.
- Pisu galera %12 baino txikiagoa izango da.
- Gogortasuna lortzeko 9 ordutik 30 orduko bitarteko denbora behar du.
- 7 egun eta gero trakzioarekiko erresistentzia  $8 \text{ kg/cm}^2$  baino handiagoa izan behar da.
- 7 egun eta gero mortero normalarekiko erresistentzia  $4 \text{ kg/cm}^2$  baino handiagoa izango da.
- 28 egun igarotzean pastarekiko erresistentzia  $8 \text{ kg/cm}^2$  baino handiagoa izango da.

#### 5.2.1.5.2. Igeltsua

Hurrengo baldintzak bete beharko ditu:

- $\text{SO}_4\text{Ca} / 2\text{H}_2\text{O}$  edukia gutxienez pisuaren %50-ekoa izango da igeltsu beltzen eta %66 gutxienez igeltsu zuria
- Gogortasunak 2 eta 30 minuturen artean iraungo du.
- **UNE 7050** arauaren arabera 0,2-ko bahea ez da %20 baino handiagoa izango.
- **UNE 7050** arauaren arabera 0,08-ko bahea ez da %50 baino handiagoa izango.
- 4x4x16cm-tako probeta prismatikoak 120 kg-tako karga zentral minimoa jasango dute igeltsu beltza eta 160 kg igeltsu zuria, euskarrien arteko banaketa 10,67 cm-takoa izango delarik.
- Konpresioarekiko erresistentzia minimoa  $75 \text{ kg/cm}^2$ -takoa izango da igeltsu beltzan eta  $75 \text{ kg/cm}^2$  igeltsu zurian.
- Egingo diren saiakera guztiak **UNE 7064** eta **UNE 7065** arauak beteko dituzte.

#### 5.2.1.6. **HORMIGOIA**

**EHE-08 “Instrucción del Hormigón Estructural”** dokumentuan agertzen diren atalen aparte, hurrengo puntuak hartuko dira kontuan:

Hormigoia ekartzen duten fabrikatik obra egingo den lekura ailegatu arte denbora tarte espezifiko batean egin beharko du, proiektuarekin hasi baino lehen obra zuzendariak denbora maximo bat ezarriko du eta denbora tarte baino lehen ez bada heltzen hormigoia, obra guneko kontrolak ez ditu beteko eta ezin izango da erabili.

Ekarri den hormigoia beharrezko ezaugarri mekanikoak (erresistentzia, malgutasuna...) dituela ziurtatzeko dagozkion frogak erabili baino lehen egin beharko zaizkio.

Hormigoari gehitzen zaien beste osagaiak, ala nola, ura, zementua edo harri finek dagozkion instrukzioetan agertzen diren baldintzak bete beharko dute.

Erabiltzen diren harrien tamaina kontrolatu beharko da, bibragailu baten bitartez edo dagozkion azterketa batekin.

Erabiltzen den ura ezin da izan itsasoko ura, hormigoi armatuak dituen osagai metalikoek arazoak eman ahal dute, ala nola, barne-korrosioa. Horretaz gain, erabiltzen den ura garbia izan behar da eta ezin du izan inolako ezpurutasuna.

Zapatak eraikitzeke obran egin den enkofratua hormigoia botatzean, kontuan izango da sendotze epeak errespetatu behar direla, beraz hezetasuna 7 egunetan zehar mantenduko da ureztatzearen bitartez.

Zapatetan, barne korrosio arazoak ekiditeko isolamendu distantzia minimoa errespetatu beharko da. EHE dokumentuan agertzen diren ainguratze distantzia minimoak, bai korrosioaren aurka zein bernoen gilbordura sortu dezakeen arazoak ekiditeko.

Hormigoia ondo dosifikatu behar da, beraz, hormigoian agertzen diren elementu guztien neurriak egokiak izan behar dira, horrela ez izatekotan lortutako hormigoia ezaugarri mekanikoak ez dira izango egokiak. Ondorioz, proportzio desegokiak badira, ezin da erabili lanerako. Hormigoia osagaien proportzioak aurredefinituta egon behar dira.

Hormigoia botatzen zaien gehigarriak honen kalitate eta ezaugarri mekanikoak hobetzeko izango dira, erabiltzeko obraren zuzendariak onartu beharko ditu.

Hormigoia ezaugarrien artean plastizitate egokia, pororik eta zirrikiturik gabekoa izan beharko da. Baldintza hauek lortzeko, hormigoia zaindu behar da, ureztatuz eta araudian agertzen diren beste eragiketak aurrera eramanda.

#### **5.2.1.7. ZURAK**

Eskorlatze, apeo, zinbria, aldami, enkofratu eta bestelako lagungarriak egiteko eta tailerreko lanetan erabiliko den zurak hurrengo ezaugarri hauek bete beharko dute:

Sasoian botatuko enbor sanoetatik ateratakoak izatea.

Baliabide natural edo artifizialaz beharrezkoa den denbora utzi egin da lehortzeko. Obran erabiltzeko beharrezkoa den hezetasun nahikoa izan arte.

Zuntzak zuzen eta bihurritu edo trabatu gabe izatea, piezaren neurri handienarekiko paralelo.

Eraikuntzaren elementuen erresistentzia bermatzeko behar diren forma eta neurriak izango ditu, kasu bakoitzean, zurak; behin betiko eraikuntzak direnean, plano edo beste dokumentuetan definituta egon beharko dira.

Inoiz ez da onartuko azala kendu gabeko zurik, ezta eskoratze edo apeeko lanetan ere.

#### 5.2.1.7.1. Eskoratzeak egiteko eta lagungarri bezala erabiltzeko zura

Erresistentzia minimo bat eskatuko da, ala nola, obra eta pertsonen segurtasuna bermatzeko erresistentzia nahikoa.

Usteltze-alterazioak dituzten zurak baztertuko dira, bakarrik erabiliko da kalitate oneko zura eta usteltze-alterazioak izatekotan baztertuko dira.

Ez du konpresioko hausturarik izango.

Gutxienez pinu gorriak (*Pinus sylvestris*) pareko gogortasuna duten zurak erabiliko dira.

#### 5.2.1.7.2. Enkofratuak egiteko zura

Enkofratuko zurak obran eman ahal diren deformazio kaltegarri guztiak ekiditeko sendotasun nahikoa izan beharko dute, bai bere instalazioan zein bere erabileran.

Egituraren enkofratuan erabiliko den zuran espezie erretxinadunena izango da, zuntz zuzenekoa. Zerratutako zura 1/80n motakoa izan beharko da gutxienez.

Hormigoia gainazal akaberaren espezifikazioen arabera, zuraren enkofratu forrua edo taula egiteko oholak hurrengoak izango dira:

- Mihiztatuak
- Eskuairatua eta ertz bizietan beteekin, arrabotatuta eta gordinean.

Hormigoi hezea material finaren ihes arazoak edo paramentuetan akatsak atera ditzaketen kopadurarik eta handiturik ez dela gertatuko bermatu behar da, bai gainestalduraren bitartez zein tratamendu baten bitartez. Arazo ohiek ekiditeko, bermatu behar da erabilitako oholak kalitate eta izaera egokia dutela

Enkofratuan erabilitako forruak edo taulak egiteko oholak ezin dute hormigoi ezean edo hormigoia gogortze prozesuarentzat kaltegarria izan, beraz, aztertu beharko da kaltegarri diren produktu edo paramentuak koloreztatuko dituzten substantziak izango.

Zuraren hezetasun maximoa %15 izango da, hezetasun maila hori ezin izango da pasatu.


### 5.2.1.8. ARMADURETAKO ALTZAIRUA

Zimendapenean erabiliko diren altzairuzko osagai ezberdina azalduta daude Eranskinak dokumentuan, non, azaltzen da kopurua, sekzioa eta materiala.

Armadurak hotzean eta abiadura motelaz tolestuko dira, baliabide mekanikoen bidez. Ez da hotzean deformatutako altzairu gogorturik onartuko, ezta tratamendu bereziak jasan dituztenak ere.

#### 5.2.1.8.1. Armaduren babesa

- Erabiliko diren armadurak, garbiketa eta oxido azterketak pasa beharko dute, ez da onargarria izango garbiketa, oxido edo kaltegarri izan dezaken edonolako sustantziarik agerpena. Gainazaleko akatsak edo pitzadurak duten armadurak ez dira onartuko. Proiektuaren dokumentazioan agertzen diren ezaugarriak beteko dira, non planoak lehentasuna izango dute.
- Altzairu berdina erabiliko da egitura osoan zehar, horrela elementuen arteko nahasketa arriskua txikituko da eta ez dira izango altzairu ezberdineko bi elementu berdin.
- EHE-08 dokumentuan agertzen den bezala tolestu beharko dira armadurak. Proiektuko planoetan azaltzen da tolesketa era zehatza, non, beti errespetatuko da EHE-08 agertzen diren puntuak.



### 8.1. Irudia. Zapatak



Hormigoia armatzeko erabiliko den altzairua segi behar duen araudia:

- **UNE 36068:2011** (barra korrugatuentzat)
- **EHE 08 arauko 5. eranskina** (barra korrugatuaren itsasgarritasuna)
- Limite elastiko, tolesketa eta destolestea eta korrosioari buruzko EHE-08ko
- atalak.
- Diametro izendatuak serie honetara egokituta egongo dira: 6-8-10-12-14-16-20-25-32-40 mm.
- Barrek ez dute azaleko akatsik, pitzadurarik eta haize-zulorik izan behar. EHE araudia azaltzen dituen puntuan kontuan hartu beharko dira, guztiak errespetatuz, baten bat ez bada betetzen atzera bota beharko da.
- Sekzio baliokidea: **UNE 36068:2011 (S/EHE), 36099:1996**.
- Ezaugarri geometrikoak: **UNE 36.068:2011 (S/EHE), 36099:1996**.
- Ezaugarri mekanikoak: muga elastikoa, haustura eta luzapeneko karga, **UNE 36099:1996, UNE 7326:2017**.
- Tolestea /destolestea: **UNE 36068: 2011 (S/EHE), 36099:1996**
- Obran soldatzeko gaitasuna: **UNE 36068: 2011 (S/EHE), 36099:1996**.

#### 5.2.1.9. SANEAMENDU SAREAK

Saneamendu sare instalazio guztiak hurrengo araudia bete beharko dute:

- Ur horniketarako hodientzako Preskripzio Tekniko Orokorren Agiria (28-7- 1974 MOPU)
- “Normas Tecnológicas de la Edificación” NTE IFA .
- Plentziako udalaren ordenantzak.

##### 5.2.1.9.1. Hodiak:

Hodiak hurrengo ezaugarriak bete beharko dute, proiektuaren zuzendariak baieztatu beharko ditu eta ezaugarri guztiak betetzen ez badira atzera bota beharko da produktua:

- Hodien barnealdeko gainazala leuna izango da, ez du izango inolako erregulartasuna.
- Akabera onekoa, lodiera uniformeaz.
- Hodiak sekzio zirkularra izango dute.
- Hodien ertzak leunak eta luzetarako ardatzaren perpendikularrean egongo dira.
- Erabiliko diren hodiak 40°C-tik beherako aplikazioetarako erabiliko dira, eta debekatuko da tenperatura horretatik gora erabiltzea.
- Ez dute izango bizar, pitzadura edo pikorrik.

Hodiez aparte, erabiliko diren osagai bereziak proiektuan aurreikusiko dira. Obrako zerbitzu baldintzak asetzeko ahalmena izan beharko dute, bai eraiketan, bai bitzita erabilgarrian. Hodian eta gainezko osagaien ezaugarriak nahiko izango dira

proiektuan eskatzen diren balioak asetzeko eta beste osagaiak bezala, segurtasun-koefiziente batekin dimentsionatuko dira.

Euri-ura eta hondakin-ura garraiatzeko, hodiak erabiliko dira, hodian ezaugarriak, bai fisiko, perdoiak edo egin behar diren saiakuntzak **UNE 53114** arauan agertzen diren puntuak errespetatuz egingo da.

Bestelako materialen ezaugarriak, perdoia eta saiakuntzak, **UNE 53020** eta **UNE-EN ISO 13468-1:1997** agertzen diren puntuak errespetatuz egingo da.

MOPU-k herrien saneamendu eta ur-horniketa sisteman erabiliko den diseinu, hoditeria eta bestelako elementuak Preskripzio Tekniko Orokor pleguan agertzen diren baldintzak bete beharko dira.

Ur-horniketaren barne instalazioa oinarrizko araudiaren arabera, gutxieneko 15 kg/cm<sup>2</sup> lan presioa jasan dezakeen hodi eta txorroteria erabiltzeko prest egon beharko dira. Gainera, instalazioan dagoen zerbitzu presioa eta ixterakoan agertzen diren elementu ezberdinak emango diren ariete kolpeak jasateko gai izango dira, honetarako erresistentzia ezaugarri mekanikoak eta iragazgaiztasun probak egin behar dira 20 kg/cm<sup>2</sup>.

MOPU-k herrien saneamendu eta ur-horniketa sisteman erabiliko den diseinu, hoditeria eta bestelako elementuen saiakuntza arauen arabera hurrengo frogak egin beharko dira:

- Begizko azterketa bisuala
- Dimentsioak, lodiera eta perdoi geometrikoak (Zuzentasuna) egiaztatu
- Iragazgaiztasun frogak presio izendatuan.
- Zampaketak edo zeharkako flexio proba.
- Barneko presio hidraulikoa sortu dezakeen haustura frogak:
  - Saiakuntza ez zuzentzaileak (Bai tenperatura zein presio ezberdinetan).
  - Saneamendua sisteman 4 saiakuntza ezberdin egingo dira.
  - Hornidurakoetan 5 saiakuntza.
- Ez da 100 m hodi baino gehiago jarriko lubakiaren betetzea egin gabe, eta 100 metrotik 100 metrora ondorengoa egiaztatu behar da:
  - Lubakiaren sakonera. Ez da onartuko 5 cm-ko aldakuntzarik.
  - Hodien arteko lotura. Akatsik ez dagoela egiaztatu behar da.
  - Harearen lodiera.
  - Lubakiaren betetzea materialaren trinkotasuna. Normalean lortutako dentsitate.

#### 5.2.1.9.2. Junturak

Hodien arteko loturak egiteko erabiliko dira juntak, osagai honen oinarrizko erabilera lotura estankoak lortzea izango da, bai kanpoko infiltrazioak ekiditeen, bai

esfortzu mekanikoak jasaten. Ez dute erregimen hidraulikoan aldakuntzak sortuko, bete behar duten beste atal garrantzitsua izango da. Material iraunkorekoak izango dira.

Pieza berezientzako juntak baita ere hoditeriarentzako erabiliko diren junten antzekoak izango dira eta material iraunkorrekoak izan beharko dute.

Junta mota bakoitzak bete beharko dituen baldintzak fisiko eta teknologikoak **MOPU (Ministerio de Obras Públicas y Urbanismo)** hodiatarako ur-horniketa Preskripzio Tekniko Orokorren Pleguan azaltzen direnak izango dira.

Ondorengo arauetan ezartzen diren xedapenak eta probak bete beharko dira:

- Eraztun elastikoen kautxuzko juntak, **UNE 53571, UNE-EN ISO 868 eta 53510.**
- Topekako soldaduren juntak dentsitate handiko polietilenoazko hodieta, **UNE 53394.**
- PVC-ko hodieta kolatutako loturak egiteko itsasgarriak.

Junten lotura estankoa bermatzeko eta hodian funtzionamendua baieztatzeko, 500 metroko, junten iragazgaitasun-proba bat egin beharko da, proba bakoitzean, presio izendatuaren %40 handiagoko probako presioa erabiliko da 30 minututan  $\sqrt{T/5}$  baliotik ez jaitzea bermatu beharko da.

Inolako galerarik ez daudela egiaztatu beharko da.

#### 5.2.1.10. ZAPATAK

Zapatak egiteko, hormigoizko geruza erabiliko da, lehenengo 10 cm-ko garbiketa hormigoizko geruza eta ondoren geruza iragazgaitza, barruko armadura babesteko. Geruza iragazgaitza aurredefinitutako erresistentzia eta trinkotasun balio minimoak bete behar ditu.

ZIMENDAPENAREN ELEMENTUEN EZAUGARRI TAULA						
Erreferentzia	Dimentsioak (cm)	Lodiera (cm)	Behe armadura X	Behe armadura Y	Goi. Armadura X	Goi. Armadura Y
<b>A ZAPATA</b>	180x180	40	8ø16c/21	8ø16c/20		
<b>B ZAPATA</b>	180x180	40	14ø12c/12	8ø16c/21		
<b>C ZAPATA</b>	170x170	35	8ø16c/20	5ø20c/30		
<b>E ZAPATA</b>	190x100	40	5ø12c/19	7ø12c/28	3ø12c/28	7ø12c/28
<b>D ZAPATA</b>	140x70	30	3ø12c/25	5ø12c/30		

10.1. Taula. Zapaten ezaugarri taula

Gutxienez hurrengo ezaugarriak bete behar dira:

- EHE dokumentuan agertzen diren baldintzak beteko dira.
- EHE dokumentuaren 26. Artikulua errespetatuko da zementuaren osakeran.
- Azpi-oinarria egiteko, legarra, zaborra edo antzeko produktuak erabiliko dira.

Armadurak, soldatuko dira haien arteko batuketa egiteko, hain zuzen ere elektro soldadura erabiliko da. Ezaugarri minimoak proiektuan definitu izan dira.

Hormigoia egiteko, ur garbia erabiliko da, non, bere erabilera baino lehen aztertu behar da, bai konposaketa kimikoa zein hormigoia-erantzako kaltegarri izan ahal den edozein produktu mota.

EHE dokumentuan agertzen diren gehigarriak bakarrik ahalbidetzen dira, non dokumentu honetako baldintzak errespetatu beharko dira.

### **5.2.1.11. ERAIKINAREN ITXITURAK ETA ZATIKETAK**

#### **5.2.1.11.1. Blokezko itxiturak eta zatiketak**

Egositako edo arindutako buztinez eta hormigoiez osaturiko blokeez egindako itxiturak, motraileru bezala zementuz, areaz, urez eta beste osagaiez osaturiko nahasketa erabiliz. Egiturak ixteko erabiltzen dira eta xaflen bidez banatzen dira, aire ganbarak erabili ahal dituzte eta estaldura izan dezakete edo "a cara vista" utzi ahal dira.

Itxitura hauek horma handiak izaten dira, beraz elementu asko izan dezakete hutsuneak eginez, adibidez, leihoak edo ateak. Elementu hauen finkapena eta itsura ona izan dadin, erremateak erabiltzen dira, metal, hormigoia edo harriz egindako materialak erabiliz.

- Orri nagusia: Egositako edo arindutako buztinez eta hormigoiez osaturiko blokeak, motraileru bezala zementuz, areaz, urez eta beste osagaiez osaturiko nahasketa erabiliz.
- Junturak: CTE DB-HS dokumentuaren 2.3.3.1 atalean adierazitako elastikotasun eta itsaspen ezaugarriak bete behar dituzte.
- Aire ganbara: 3 cm-ko lodiera izango du gutxienez eta luzerako bereizgailuak izango ditu. Suaren CTE DB-SI-2 dokumentuaren 1.atalak aire ganbarentzat ezarritako baldintzak bete behar ditu.

#### **5.2.1.11.2. Itxitura osagaiak**

Kanpora ematen duten hutsuneak ixteko segurtasun elementuak, lokaletara sartzeko bidea izanik, edozein moduan zabaltzeko modukoak (bilgarriak, tolesgarriak...). Elementu hauek egiturari zuzenean edo itxiturari lotutako elementu bertikalei edo horizontalei finkatuko dira, lokalen barrualdea eguzkitik eta kanpoko bistatik babesteko helburuarekin.

- Itxitura tolesgarria edo zabalgarria bada, 0.80 mm lodiera minimoko altzairuzko xafla metalikoak erabiliko dira, korrosioaren aurka babestua eta galbanizatua.
- -Itxitura tubularra bada, 16 mm-ko diametro eta 1mm-ko lodiera minimoko altzairuzko tutu metalikoak erabiliko dira, korrosioaren aurka babestua eta galbanizatua.

## 5.2.1.12. ERAIKINAREN AKABERAK

### 5.2.1.12.1. Ziurgundegia

**Ateak:** xafla irristagarriak, eraisgarriak edo tolesgarriak. Plastikoz (PVC), zurez, beiraz, aluminioz edo altzairuz (xaflakorra, herdoilezina..) osaturik egon daitezke.

**Leihoak:** xafla finkoak, irristagarriak, eraisgarriak, birakariak edo tolesgarriak. Plastikoz (PVC), zurez edo altzairuz (xaflakorra, herdoilezina..) osaturik egon daitezke.

**Elementu osagarriak:** atek eta leihoak joango diren itxituren ertzetan finkatzeko erabilitako elementuak, hau da, moldurak, finkapen besoak, torlojuak, gomazko burletak eta itxierako eta zintzilikatzeko beharrezko burdineriak.

- Ateak eta leihoak: berotan edo hotzean laminatutako altzairuzko profilez osatuak, korrosioaren aurkako 15 mikrako babesarekin eta galbanizatuak.
- Ertzen profilen txapak gutxienez 0.8 mm-ko lodierakoak izan beharko dira.
- Txapen moldurak gutxienez 0.5 mm-ko lodierakoak izan beharko dira.

### 5.2.1.12.2. Beirazko zurgindegia

Beirazko elementuez osaturiko egituraren hutsuneen itxiturak, hauek gardenak edo erdi-gardenak izanik. Haien artean, beira sinpleak daude, beirazko xafla bakar batez osaturikoak, zurgindegiaz kokatuta edo egiturari zuzenean lotuta. Hurrengo azpi-motak ditu:

**Inprimatutako beira armatua:** laua, gardena, koloregabea eta altzairuzko sare bat duen beira xafla, aurpegiak inprimatuta izanik.

**Leundutako beira armatua:** laua, gardena, koloregabea eta altzairuzko sare bat duen beira xafla, aurpegiak leunduta izanik.

**Beira laua:** laua, gardena, koloregabea eta suaren bidez leundutako aurpegiak duen beira xafla.

Modu berean, beirak xaflakorrak izan daitezke, hau da, xafla bi edo gehiagoz osaturiko elementua, zurgindegiaz kokatuta edo egiturari zuzenean lotuta. Hurrengo azpi-motak ditu:

**Xaflaz osaturiko beira:** beirazko xafla bi edo gehiago (sinpleak eta tratatuak) osaturik dauden beirak, haien artean material itsaskorrez lotuta eta banatuta doazenak, kolpeei, suteei, soinuari erresistentzia hobetoagoak lortuz.

**Xaflaz osaturiko segurtasun beira:** beirazko xafla bi edo gehiago (sinpleak eta tratatuak) osaturik dauden beirak, haien artean material itsaskorrez lotuta. Mota honek kolpeen kontrako erresistentzia handia du.

Beste mota bat beira bikoitzak dira, aire ganbara batez banatutako bi beira osaturiko elementua, isolatze termiko eta akustiko hobetoak lortuz, zurgindegiak kokatuta edo egiturari zuzenean lotuta. Azkenik, beira sintetikoak daude, polikarbonatozko edo metakrilatozko xaflez osaturiko konposatuak. Finkapen sistema asko dituzte, bertikalki edo horizontalki kokatzeko aukera izanez eta kolore gabeak izan ahal dira, guztiz gardenak edo opakak izanik.

- Erabilitako beira bikoitza izango da, aire ganbara batez banatutako bi beira osaturiko elementua, isolatze termiko eta akustiko hobetoak lortuz, zurgindegiak kokatuta edo egiturari zuzenean lotuta.

#### 5.2.1.12.3. Zolata

Azpi-oinarri bezala geruza erresistente eta trinkotua erabiltzen duen hormigoizko geruza iragazgaitza, bere funtzioaren arabera lodiera aldakorra duena. Lurzoruaren gainean eusten da eta zolagain bezala erabili daiteke gainazal akabera tratamendu bat erabiliz. Gaiak estatiko aldakorra duten lekuetan erabili ohi da gehien bat, hau da, zonalde industrialetan edo lokal komertzial handietan.

Kasu honetan, kotxeen sarreraren ingurunea da, hau da, sotoko solairuan:

- Azpi-oinarria legarrez, zagorrez...eginda egon behar da.
- Iragazgaitza polietilenoazko lamina baten bidez egingo da.
- Altxairuzko elektro-soldatutako sareak, proiektuan adierazitako erresistentzia eta ezaugarriak dutenak.
- Hormigoia egiteko osagaiak EHE dokumentuan azaldutako baldintzak bete behar dituzte.
- Zementua EHE dokumentuaren 26.artikuluaren bete behar du, ala nola "Recepción de cementos" gidaren baldintzak.
- Ura, garbia izan behar da eta ezin dezake sustantzia kaltegarriak izan hormigoientzat. Ezin daiteke itsasoaren edo edozein ur gatzatuak erabili.
- Idorra EHE dokumentuaren 28.artikuluaren bete behar du eta proiektuan bere tamaina maximoa eta minimoa agertu behar da.
- Gehigarriak erabili ahal dira hormigoia ezaugarriak aldatzeko, beti EHE baimentzen badu eta proiektuan adieraziz.

#### 5.2.1.12.4. Zoruen eta eskaileraren estaldura jarraituak

Kanpo eta barne zoruen estaldura, obran burutua forjatuen eta zolaten tratamendu bidez modu sinplean edo zolagain jarraitu bat sortuz material konglomeratzaile batekin, akabera mota desberdinak aplikatzeko aukera izanik.

Erabilitako estaldura mota gehienak hurrengoak dira: hormigoiez osaturiko zolagain jarraitua, motrailuz osaturiko zolagain jarraitua, erretxina sintetikoak erabiliz osaturiko zolagain jarraitua eta terrazo "in situ" osaturiko zolagain jarraitua.

- Behe-goiko solairuetan motrailuz osaturiko zolagain jarraitua erabiliko da.
- Behe-solairuko kanpoaldean terrazo "in situ" aplikatuko da.
- Irristadura kasuak ekiditeko asmoarekin, CTE DB-SU dokumentuak ezarritako baldintzak beteko dira, zoruaren erabilera eta kokalekua kontutan hartuz.

### 5.2.1.13. INSTALAZIOAK

Instalazio elektrikoa independentea da bi etxebizitzentzako, beraz bi instalazio berdinak egingo dira, instalazio bat etxebizitza bakoitzeko.

#### 5.2.1.13.1. Telekomunikazioak

Telekomunikazioetako azpiegitura orokorraren instalazioa kabletelekomunikazio zerbitzuaren sarbidea emateko zuzenduta dago, zerbitzuaren operatzaile desberdinen elikatzeko- saretik, erabiltzaileen hargunetaraino.

- Elikadura sarea: kablez egindako lotura telekomunikazio sistema elikatzeko asmoarekin. Kutxatila bate erabiltzen du sarrera eta erregistro bezala.
- Distribuzio sarea: erregistro nagusitik erabiltzaileetaraino doazen kableak zerbitzua emateko, kable koaxialak eta bigarren mailako erregistroak erabiliz.
- Konexio elementuak: telebista, telefonoa edo interneta(fibra optikoa) konektatzeko erabiltzen diren osagaiak.

#### 5.2.1.13.2. Instalazio elektrikoa

Behe-tentsio instalazioa, 230/400 V-en arteko elektrizitate instalazio banaketa, enpresa baten bidez egingo da, enpresa hornitzaileak instalazio osoaz kargu egingo da.

Lur-konexioaren instalazioa: Masa metalikoek izan dezaketen tentsioa mugatzeko, babesen matxura arriskua txikitzeko eta erabilitako material elektrikoaren babesa ziurtatzeko edo arriskua deuseztatzeke kokatzen dira.

Lotura zuzena da, zirkuituaren zati baten edo aparteko zati bat eroale baten bitartez lurzorura bideratuko da elektrizitatea, lurzoruan lurperatuz elektrodoa edo lur-konexio taldea.

Erabiliko diren produktuen informazio gehigarria:

- Segurtasun kutxa orokorra (CGP).
- Elikadura sare orokorra (LGA):eraikina elikatzen duen sarea, CGP-ra kontagailuetara lotuko dena.
- Kontagailuak:
  - Indibidualak
  - Taldekoak izan ahal dira eta armairuetan kokatzen dira.
- Potentzia kontrolaren etengailua (ICP).
- Distribuzioaren koadro orokorra:
  - Etengailu diferentzialak
  - Etengailu magnetotermikoak
- Lur hartze instalazioa: tutuak, txapa, eraztunak, sare metalikoak, etab.

#### 5.2.1.13.3. Argiztapen intslazioa

Argirik gabeko guneak argi-iturri artifizialekin argituko dira, lanpara elektriko batek edo hainbat lanpara elektrikoek lortutako argia eraldatzen, banatzen edo iragazten duten argiztapen aparatuen bidez. Argiztapen aparatuek beharrezkoak diren gailu desberdinak osatzen dituzte: lanparen euskarriak, finkapen sistema, babes metodoak eta, behar izanez gero, elikatze zirkuitu laguntzaileak, elikatzesarearen konexioekin batera konbinatuz.

#### 5.2.1.13.4. Suteen kontrako babes intslazioak

Ustekabeko jatorria duen sute baten ondorioz eraikin batean sortu daitezkeen problemak eta erabiltzaileak jasan dezaketen kalteak muga onargarri batera murrizteko erabiltzen diren ekipamenduak eta instalazioak dira, CTE DB SI dokumentuaren eta proiektuaren ezaugarrien arabera zehaztuak.

- Su-itxalgailuak: CTE DB-SI araudiaren arabera gune industrial batean suitxalgailuek ebakuazio irteeratik eduki dezaketen distantzia maximoa 15mtakoa izango da. Hauen kokapena erabili beharko dituen edonorentzat eskuragarria izateko egon beharko dira, erabilpena azkarra eta egokia izateko asmoarekin. Su itxalgailu hauek horman zintzilikaturik joango dira eta goiko partea ezin dute 1,7m-tako altuera baino handiagoan izan.

#### 5.2.1.13.5. Hondakinen gestiorako instalazioak

Bi motako hondakin mota gestionatu beharko dira: likidoak eta solidoak. Eraikinaren euri uren eta hondakin uren ebakuazio sarearen instalazioa, CTE dokumentuan definitzen den moduan, ur hauek isuri baino lehen beharrezkoa den tratamendua ere kontutan hartuz.

Bi estolda-saila publiko erabiltzen dira, berriz, ur mota bakoitza bere sarea erabiliko du partzelatik ateratzeko eta bakarka joango dira sare publikoraino.



- CTE DB-HS 2 dokumentuaren 2.1.3 atalaren arabera, paretan eta zoruaren estaldura iragazgaitza eta garbitzek erraza izan behar da.
- CTE DB-HS 2 dokumentuaren 2.2.2 atalaren arabera, zorrotan materiala iragazgaitza, korrosioarekiko babestua eta gogorra izan behar da. Bere barruko gainazala leuna izan behar da.
- CTE DB-HS 2 dokumentuaren 2.2.3 atalaren arabera, hondakinak botatzeko konportak erabiltzeko errazak eta oztopatuta geratzeko zailak izan behar dira. Gainera, itxiera sistema hermetikoa eta isila izan behar dute.

#### 5.2.1.13.6. Produktuen harrerako baldintza orokorrak

Produktuen harrera eta kontrol metodoak CTE dokumentuaren 7.2 artikuluan adierazten den moduan egingo da. Artikulu honek hurrengo dio: harreraren kontrolaren zeregina proiektuan erabiliko diren produktuak, ekipamenduak eta sistemak beharrezkoak diren eskaera teknikoak betetzen badituzten konprobatzea da. Horretarako, hiru kontrol mota egin beharko dira elementu guztientzat:

- Produktuen dokumentazioaren kontrola (CTE - 7.2.1 artikulua).
- Kalitate eta ebaluazio teknikoaren ziurtagirien bidezko kontrola (CTE - 7.2.2 artikulua).
- Harrera kontrola entseguen bidez (CTE - 7.2.3 artikulua).

#### 5.2.1.13.7. Produktuen dokumentazioaren kontrola

Hornitzaileak hornitutako produktuen identifikazio dokumentuak eman beharko dizkio eraikitzaileari, eta honek dokumentuak Zuzendaritza Fakultatibora eraman beharko ditu.

Dokumentu hauek derrigorrez bete beharrezko arauak exijitzen dituzte eta, gutxienez, hurrengo dokumentuak osatzen dituzte:

- Jatorri, hornikuntzako eta etiketatze dokumentuak
- Fabrikatzailearen segurtasun-ziurtagiria, teknikoaren sinadura fisikoarekin.
- Adostasun-dokumentuak edo erregelamenduz eskatutako baimen administratiboak eta, beharrezko denean, CE marka duten eraikuntzaproduktuei buruzko dokumentazioa, hornitutako produktuei eragiten.

#### 5.2.1.13.8. Kalitate ziurtagirien eta ebaluazio teknikoen bidezko kontrola

Hornitzaileak hurrengo prozesuen dokumentuak proportzionatuko ditu:

- Hornitutako produktuen, ekipamenduen eta sistemen kalitate ziurtagiria, proiektuak exijitutako karakteristika teknikoak ziurtatzen duena, hala nola ziurtagiriaren errekonozimendu ofizialaren dokumentazioa, CTE-aren 5.2.3 artikulua ezarritakoaren arabera.
- Hornitutako produktuen, ekipamenduen eta sistemen ebaluazio teknikoak eta hauen ezaugarri teknikoen mantenuaren ziurtasuna, CTEaren 5.2.5 artikulua ezarritakoaren arabera.
- Adostasun-dokumentuak edo erregelamenduz eskatutako baimen administratiboak eta, beharrezko denean, CE marka duten eraikuntzaproduktuei buruzko dokumentazioa, hornitutako produktuei eragiten .

Obraren betetzearen zuzendariak dokumentazio hau justifikatzen dituen produktuen, ekipamenduen eta sistemen onarpenerako nahikoa dela egiaztatuko du.

#### 5.2.1.13.9. Harrera kontrola entseguen bidez

Kasu batzuetan, CTE dokumentuaren eskakizunak betetzen diren frogatzeko beharrezkoa izango da produktu batzuekin entseguak eta frogak egitea, indarrean dagoen arauak jarraituz edo proiektuak ezarritako neurrien arabera.

Kontrol honen errealizazioa proiektuan ezarritako irizpideak edo obraren Zuzendaritza Fakultatiboaren oharren arabera egingo da, produktuaren laginketa metodoa, egin beharreko entseguak eta onarpen eta ukatze irizpideak zehaztuz, hala nola lortutako emaitzen arabera hartu beharreko neurriak.

## 5.2.2.BALDINTZA EKONOMIKOAK

Dokumentuaren atal honetan bilatuko da baldintza ekonomikoak eta administratiboak finkatzea, honetarako eraikitzaileak obran burutu diren lan guztien azalpena eta balioa azaldu behar ditu. Beti egon behar da proiektuaren burutzearekin lotuta.

### 5.2.2.1. FUNTZIOEN ZEHAZTAPENA

Atal honetan aztertuko dira obra zuzendaria eta eraikitzailearen funtzioak, arazoren bat izatekotan nork izango den errudun jakiteko.

#### Obra Zuzendaria

Obrako zuzendaria hurrengo funtzioak izango ditu proiektuan:

- Kontrol ekonomikoa eta kalitate kontrolak aurrera eraman araudi teknikoaz baliatuz.
- Arriskuei egokitutako sistemen ikerlana idatzi.
- Segurtasun eta Higienea plana onartu
- Obraren zuinketa burutu eta aktak prestatu.
- Eraikinaren zimenduak lurraren ezaugarri errealei egokitu eta aztertu
- Egitea bete eta zuzendu proiektu, arau tekniko eta eraikitze arauen arabera.
- Eraikuntzan sortuko diren arazoak konpontzeko eta emaitzak lortzeko beharrezko argibideak osagarriak eman.
- Gainontzeko teknikoen obran parte hartzea koordinatu.
- Instalazioen eta obrako gainontzeko unitateen entsegu eta frogak egin, kalitatea bermatzeko beharrezkoak diren baieztapenak bete.
- Sortu ahal diren arazoak eta emaitzei buruzko berriak emango dio eraikitzaileari beharrezko aginduak emanez.
- Obra amaieraren ziurtagiria izenpetu.

#### Eraikitzaile

Eraikitzaileak bere lana ahalik eta azkarren eta eraginkortasunez aurrera eramateko, obra zuzendariak behar duen material guztiaz hornitu beharko du. Hurrengo betebeharrak aurrera eraman beharko ditu:

- Obra Zuzendariarekin batera obraren zuinketa akta idatzi eta sinatu.
- Seguritate eta Higiene Plana bete, beharrezko prebentzio neurriak betez.
- Beharrezko obra planak organizatu eta behin-behineko instalazioak eta obrako baliabide laguntzaileak baimenduz.
- Erabiliko den material eta eraikitze elementu guztien kalitatea bermatu, bai obran egin direnak zein obratik kanpo ekoiztu diren elementu aurrefabrikatuen espezifikazioen betetzea bermatu.
- Arauen liburua eta obraren jarraipena zaindu.
- Obraren zehar gertatu litezkeen lan istripu eta hirugarrenei kalte aseguruak hitzartu.

### 5.2.2.2. NEURRIAK

Obran erabiliko diren elementu bakoitzak neurketa metodo ezberdina izango du, beraz, elementu bakoitza bere neurketa propioa izango du. Argi eta garbi, elementu bakoitzak neurtzeko, unitate bat egongo da, ala nola, metro, kilogramo, metro karratu...

#### 5.2.2.2.1. Neurketa metodoa

Atal teknikoan azaldu den moduan, neurketa era askotakoak izan daitezke, bai obraren bukaera partzialean zein obraren amaieran. Beraz, dokumentu hauek proiektuaren zuzendaria eta eraikitzailea bete beharko dituzte, baina beti beharko da bien sinadura.

Neurketa guztiak obraren benetako neurriekin erlazionatuta egon behar dira, beraz, kalkuluetan lortuko diren neurri guztiak errealak izan behar dira. Eraikitzaileak ezin izango du erreklamaziorik egin eraikinaren konstrukzioan egin izan diren neurketei buruz, ezta proiektuan agertu izan diren neurketei buruz ere.

#### 5.2.2.2.2. Neurketa buruzko kexak

Jabegoak kontratazio dokumentua sinatu ondoren eta neurketa guztiekin ados izanez gero ezingo du inolako kexarik jarri. Eraikinaren proiektuarekin zerikusia izan dezakeen edozein motako elementu baten aipamena edo neurketa ahaztuz gero, ezin izango du inolaz ere aurrekontu dokumentuan sartu edo kontuan izan.

Memoria dokumentuan argitaratzen diren puntuei buruzko kexak ez dira onartuko. Aurrekontuetan errekontza edo desbiderapenak egon ahal dira, elementuen kopurua dela eta. Eraikitzailea eta arkitektoak aurrekontu dokumentua sinatuko dute eta hurrengo hiru hilabetetan zuzentzeko aukera izango dute. Dokumentua sinatu eta hiru hile igaron ondoren ezin izango da inolako kaxarik jarri.

#### 5.2.2.2.3. Neurketa akatsak

Eraikitzaileak aurrekontu dokumentua sinatuko du eta hurrengo hiru hilabetetan zuzentzeko aukera izango du. Dokumentuak ikertu beharko ditu arretaz, beraz, aurrekontuan agertzen diren balorazio guztiak neurri errealekin erlazionatuta egon beharko dira.

#### 5.2.2.2.4. Dokumentuan agertzen diren neurketen balorazioa

Zuzendari fakultatiboak emango du neurketen berri, eraikitzaileak ez du izango eskubiderik neurketak nola izan behar diren esateko. Agertzen ez diren neurketen baldintzak arkitektoak jarriko ditu. Ateratako balioa aurrekontuaren azken balioarekin batu beharko da.

### 5.2.2.3. BALORAZIOA

Proiektuan agertzen diren elementuen balorazioa, prezio unitario bakoitzaren eta elementu kopuru osoaren arteko biderketa bat eginez lortuko da. Prezio unitarioaren balioa aurrekontuan agertuko da. Prezio unitarioen barnean dauden atalak hurrengoak izango dira:

- Garraio kosteak
- Erabiliko diren materialek izan dezaketen erga fiskalak
- Gertatu ahal diren kalteen ordainketak
- Beste arrazoiengatik egon ahal diren ordainketak

Eraikitzaileak izango da instalazioei buruzko azterketa, onarpena eta egiaztapenaren arduraduna. Obran erabiliko diren produktuen unitateak bat bezala neurtzen badira, hurrengo aspektuak aztertuko dira kostuen barnean:

- Materiala
- Gehigarriak
- Beharrezko ekintzak

#### 5.2.2.3.1. Balorazioen erlazioa

Eraikitzailea hilean behin haien balorazio propioak argitaratuko dituzte, aurreko balorazioak kontuan hartuz eta aurrekontu dokumentuan agertzen diren prezioekiko konpondurik. Aparejadoreak edo arkitektoak gehienez hogeit hamar eguneko periodoa izango dute eraikitzailearen balorazioa aztertzeko. Beraz, arazoren bat egonez gero periodo honetan konpondu beharko dute, bestela haien onarpena emango dute. Nahiz eta baloraturiko erlazioak behin behineko ezaugarriak izan ez dute zergatik esan behar onarturik daudela.

#### 5.2.2.3.2. Gremioari emandako obrak eta haien balioa

Gremioari proiektu obraren balio erreala abonatu zaio, bakarrik ordainduko zaio egindako lanengatik. Aurrekontuan kontuan hartu behar da egin ahal daitezkeen aldaketak, ahal denean, idatziz eman behar zaio onarpena eraikitzaileari, honek ezin du inoiz jarritako kopuru maximoa gainditu. Beraz, proiektuaren aurrekontuan agertzen diren elementu kopuru ez du balio edozein motatako kexa jartzeko.

Aurrekontuan kontuan hartzen dira elementu ezberdinen akabera onena lortzeko behar den lana. Kontrataren baldintzetan agertzen ez diren lanak aurrera eraman behar badira jabegoarekin hitz egin beharko da guztizko balioa adieraziz. Kasuren batean proiektuan agertzen ez diren materialik erabiltzen bada beste antzeko material bat bezala sartuko da proiektuan. Horrela ez bada, obra zuzendariak eta gremioak haien artean eztabaidatu beharko dute jabegoaren onarpena lortu arte.

Gremioak erabilitako elementuak proiektuan gainditutako materialak izan beharko dira, berdin da obra zuzendariaren onarpena izatea. Debekatuta dago proiektuan agertzen diren materia ezberdinen erabilpena, nahiz eta prezio hobeagoa izan edo tamaina handiagoa eduki.

#### 5.2.2.3.3. Ordainketa epeak

Jabegoak gremioari ziurtagiriaren arabera ordainduko dio, aparejadoreak eta arkitektoak ziurtagiriak sinatuko dituzte. Ziurtagiria sinatuta dagoenenan eraikitzailea bi aste ditu gremioari ordaintzeko, bi aste horietan gremioak ezin du obra geldiarazi.

Gremioari bi aste igaro eta gero ez bazaio ordaindu kontratua apurtu dezake. Kontratua apurtzean, obra burutzeko erositako material guztien eta elementu guztien dirua errekuperatuko luke.

Kontratua apurtzeko, gremioak erakutsi beharko du obrak ez direla epean ordaindu, bestela ezin izango da kontratua apurtu.

#### 5.2.2.4. BETE BEHARREKO BALDINTZA EKONOMIKOAK

Atal honetan derrigorrez bete beharreko aspektu ekonomikoak azalduko dira.

##### 5.2.2.4.1. Ordainketa mota

Gremioak merezi duen zenbatekoa hartuko du kontratuan hitzartutako lan guztiak behar bezala aurrera eraman baditu, bere lanen artean hurrengo dokumentuak hartuko dira kontuan.

- Baldintza agiria
- Planoak
- Kalkuluak

Ziurtagiriak lanen arabera egingo dira, eta ziurtagirien arabera gremioak kobratuko dute. Gremioek lana amaitzean, ziurtagiri guztiak jaso baldin badute kontreatuaren %100 kobratuko dute.

Kexa bat burutzeko, arazoa gertatu den unetik hurrengo 15 egun maximo igaro dezakete kexa balio legala izateko. Kexak hiru motatakoak izan ahal dira eta obraren zuzendariak jarri beharko ditu:

- Ekonomiko
- Tekniko
- Legala

##### 5.2.2.4.2. Prezioen berrikuspena

Eraikitzailea jabegoa denez egin beharreko gainerako ordainketak egingo ditu. Gremioak prezioen berrikusketarako eskubidea izateko, beharrezkoa izango da bere firma eta gehienez 15 egun izango ditu martxan jartzeko, gainera, jabegoari egoera onean obra eman beharko dio. Obraren egoera kalitate kontrolak ez balute pasa, gremioak eskubide guztiak galduko lituzke.

##### 5.2.2.4.3. Kalte ordainketak eta aseguruak

Eraikinaren konstrukzioaren bitartean ematen diren edo gertatu ahal diren arrisku guztien erantzulea eraikitzailea izango da. Bai obraren perimetroan gertatutakoak zein obraren inguruan gertatzen direnak. Istripu hauen kalte ordainketaren arduraduna eraikitzailea izango da, obra zuzendaria ez du inolako zerikusirik obran gertatutako istripuekin.

Aseguruak polizako atalen bat aldatu nahi izanez gero, hile bateko aurrerapenarekin jabegoari jakinarazi behar dio zein izango den aldaketa. Poliza mota hauek jabegoari aurkeztu beharko zaizkio. Obraren edo obraren inguruan istripuren bat izanez gero, jabegoak obrako zuzendariari jakinarazi beharko die.

### 5.2.3.BALDINTZA EKONOMOKOAK

#### 5.2.3.1. ERAIKITZAILEA

Eraikitzailea jabegoa denez, obraren lehenengo erantzulea da. Hurrengo puntuetaz ardatuko da.

##### 5.2.3.1.1. Bulegoa

Obran jarri beharko den bulegoan, eraikitzaileak arbel bat jarri beharko du azalpena emateko erabiltzeko, arbelaz aparte mahai handi bat egongo da batzarrak egiteko. Bulego honen funtzio nagusia obrako dokumentuei hitzegiteko izango da, nagusiki planoei buruz. Bulegoan momentu oro egongo da proiektuaren kopia bat, zeinek proiektuaren arkitektoa erraztu dio.

##### 5.2.3.1.2. Gremioak

Eraikitzailea aurreikusi beharko du proiektuaren etapa bakoitzeko beharko dituen langile kopurua, beraz, egunero izan beharko ditu beharrezko langile kopuru totala.

Segurtasun eta osasun arrazoiengatik, langile bakoitzak beharrezko formakuntza zehatza izango du, bakarrik egingo dituzte trebatutako lanak, horrela azkarrago lan egingo dute eta istripuak txikituko dira.

Jabegoak langileak bota beharko dituzte arkitektoak esaten duenean, baina arkitektoak langileak kaleratzeko hurrengo arrazoiren batengatik izango da:

- Langilegoaren errespetu falta edo kasu ez egitea.
- Obrako ikuskatze arduradunei kasu ez egitea.
- Lanen atzerapena eragiten duten langileei.

##### 5.2.3.1.3. Akatsen erantzukizuna

Jadanik azaldu den bezala, eraikitzailea izango da obraren erantzule zuzena atal ezberdinetan, istripuren bat izatekotan, Tribunal baten aurrean eraikitzailea izango da erantzulea. Ezin izango du inongo kalte eskubiderik eduki obra burutzen ari den bitartean egin ahal izan dituen akatsak direla eta.

Inguruko eraikinetan inolako narrioa sortuko balitz obraren erruz, eraikitzaileak izango zen erantzulea eta bere ardura izango zen beste eraikinen konponketa edo isuna ordaintzea.

Eraikitzailea hartu beharko ditu beharrezko neurriak inori ezer ez gertatzeko, bai obra eremuan zein obraren inguruan. Hartutako neurriak nahikoak izango ziren istripuak ekiditeko, bai muga txikiko istripuak zein muga handiko istripuak.



#### 5.2.3.1.4. Sinadurak eta aginduak

Eraikitzailea hartu beharko ditu beharrezko neurriak inori ezer ez gertatzeko, bai obra eremuan zein obraren inguruan. Hartutako neurriak nahikoak izango ziren istripuak ekiditeko, bai muga txikiko istripuak zein muga handiko istripuak.

#### 5.2.3.1.5. Lan istripuak

Dokumentu honetan jadanik azaldu den bezala, eraikitzailea izango da obraren erantzule zuzena atal ezberdinetan, istripuren bat izatekotan, aztertuko da lanaren planteamendu txarraren ondorioz izan bada, eraikitzailea izango da erantzule langilearen istripuaz.

Eraikitzaileak segurtasun neurri guztiak hartzeko betebeharra izango du, neurri hauen arabera langileen segurtasuna ziurtatuz. Obraren inguruan dauden pertsonen segurtasunaz baita ere izango da erantzule.

Obran egon beharko dira eskegita bete beharrezko segurtasun neurriak, langile guztiek errespetatzeko. Normak arkitektoak sinatu beharko ditu baliotasun erregelak izateko.

Esan den bezala inguruko eremua baita ere bete beharko ditu segurtasun erregela batzuk, beraz, obraren inguruan istripuren bat izatekotan eraikitzailearen errua izango da, ete erantzule izango da, indemnizazioren bat ordaindu behar izatekotan hark izango da ordaindu behar duena- beste alde batetik, erabiltzen den materiala baita ere segi beharko ditu segurtasun erregelak, horrela ez bada eraikitzailearen errua izango da.

#### 5.2.3.1.6. Planoak

Eraikitzaileak Zuzendaritza Fakultatiboaren onarpenarekin behin-behineko proiektuko plano guztiak eman beharko dizkio. Aldaketaren bat egitekotan Zuzendaritza Fakultatiboari jakinarazi beharko zaio.

#### 5.2.3.1.7. Baimenak eta lizentziak

Obra hasten denerako, eraikitzaileak izan beharko ditu baimen eta lizentzia guztiak. Horrela ez izatekotan ezin izango da obraren hasiera eman beharrezko dokumentazioa lortu arte.

## 5.2.3.2. ZUZENDARITZA TEKNIKOAREN BETEBEHARRAK

### 5.2.3.2.1. Proiektuaren dokumentuen irakurketa

Baldintzen agirian azaltzen ez diren atalak beste dokumentuetan egon behar dira azalduta, bai memorian edo planoetan. Ez badaude azalduta dokumentu haietan aurrekontu dokumentuetan agertu beharko dira. Aurrekontua egitura burutuko duen enpresak garatuko du eta elementuen kalitatea kontuan hartu beharko ditu.

Idatzizko dokumentuetan agertzen ez diren puntuak planoetan agertu beharko dira. Ez badira agertzen bi dokumentu ohietan obraren zuzendariaren esku egongo dira. Alderantziz gertatzen bada, hau da, idatzizko dokumentuetan azalduta dago baina planoetan ez da agertzen halako elementurik, obraren zuzendariaren esku egongo da.

Eraikitzaileak egituraren kalitatea eta proiektuaren ezaugarriak bermatzeko beharrezko azalpenak jasango ditu.

### 5.2.3.2.2. Buruketen azterketa

Zuzendari fakultatiboak obran arazoren bat ikusiko balu, eraikitzailearekin hitz egin beharko zuen eta honek obran eman diren arazoak konpondu beharko zituen. Akzio hau errepikatu ahal da zuzendari fakultatiboa eta eraikitzailearen arteko adostasuna lortu arte, hau da, eraikitzailea obraren burutze txarrak konpondu beharko ditu.

### 5.2.3.2.3. Bir planteamendua

Obrarekin hasi baino lehen zuzendaritza fakultatiboa eraikitzailearen birplanteaketa onartu beharko du, non, obran egingo diren aldaketa guztiak hitz egingo dira eraikitzailearen eta zuzendari fakultatiboaren artean. Lur zoruan markatuko dira burutuko diren lan guztiak obraren garapena argiago ikusteko. Birplanteaketa burutzeko eraikitzaileak lortu beharko ditu erabiliko diren elementu guztiak, bere ardura bait da

### 5.2.3.2.4. Materialen onarpenak

Proiektua aurrera eramateko erabiliko diren material guztiak zuzendaritza fakultatiboak onartu beharko ditu. Bere onarpena lortu arte ezin dira erabili material berriak. Bere onarpena arinagoa lortzeko kontratak bi lagin ezberdin eman beharko dio zuzendari fakultatiboari. Balio gabeko laginak zakarrera botako dira.

- Erorketa irristapen baten ondorioz.
- Garbitasun produktuekin erreakzio kimiko baten ondorioz eman ahal den arriskua.
- Sistema elektrikoaren arazo baten ondorioz eman ahal diren arazoak.
- Suteak, materialaren mantenu desegokiaren ondorioz.
- Kontaktu elektriko zuzena edo ez-zuzena.
- Konponketetan erabilitako elementu toxikoen ondorioz sortu ahal diren kutsadurak.
- Kanpo edo barne bibrazioak.
- Kutsadura akustikoaren araberrako arriskuak.

Elkarrekiko babesa:

- Eskularruen erabilera.
- Pertsonak ibiltzeko guneak edo ibilbideak.
- Sare bertikalak.
- Sare horizontalak.
- Segurtasun aldamiok.
- Materialaren mantenu egokia.
- Gerriko bereziak leihoak garbitzeko eta estalkian konponketak burutzeko.
- Igarobide eta lan guneen garbiketa.

Banakako babesa:

- Kasko homologatuen erabilera.
- Segurtasun botak
- Eskularruak larruazal eta iragazgaitzak.
- Segurtasun betaurrekoak.
- Belarrietako babesa.
- Segurtasun gerrikoa.
- Bibrazioak ekiditeko gerrikoa.
- Lanerako arropa egokia.
- Soldadura buru babes egokia.

- Segurtasun gerrikoak. Luzera eta erresistentzia egokiko kableak.

### 8.3.1.8. OBRAN ERABILIKO DIREN SEINALEAK

Apirilaren 14ko 485/1997 Errege- Dekretuak, segurtasun eta osasun seinaleztapen minimorako antolamenduak xedatzen ditu:

#### 8.3.1.8.1. Panel itxitura seinaleak

PANEL ITXITURA SEINALEA	
FORMA	Triangeluarrak
ATZEALDEKO KOLOREA	Horia
KONTRASTE KOLOREA	Beltza
SINBOLO KOLOREA	Beltza

1.1. Taula. Panel itxitura seinaleak

DEBEKU SEINALEA	
FORMA	Borobila
ATZEALDEKO KOLOREA	Zuria
KONTRASTE KOLOREA	Gorria
SINBOLO KOLOREA	Beltza

1.2. Taula. Debeku seinalea

BETEBEHAR SEINALEA	
FORMA	Borobila
ATZEALDEKO KOLOREA	Urdina
SINBOLO KOLOREA	Zuria

1.3. Taula. Betebehar seinalea

SUTE KONTRAKO TRESNERIAREN SEINALEA	
FORMA	Errektangeluarra edo karratua
ATZEALDEKO KOLOREA	Gorria
SINBOLO KOLOREA	zuria

1.4. Taula. Sute kontrako tresneriaren seinalea

SALBAMENDU EDO SOROSPEN SEINALEAK	
FORMA	Errektangeluarra edo karratua
ATZEALDEKO KOLOREA	Berdea
SINBOLO KOLOREA	Zuria

1.5. Taula. Salbamendu edo sorospen seinaleak

#### 8.3.1.8.2. Seinaleztapen zinta

Seinaleztapen zintak erabiliko dira istripuak ekiditeko, ala nola, oztopo, objektuen erorketa eremuak, pertsonen erorketak maila desberdinerara, kolpeak etab. Arrisku dagoen lekuetan oihalezko edo kolorezko marra plastikozko materialez egindakoa.

#### 8.3.1.8.3. Mugaketa zinta

Lan guneak mugatzeko erabiliko dira. Marra zuri eta beltz bertikalak dituzten zintak dira.

#### 8.3.1.9. **BOTIKINA**

Lan gunean botikin bat egon behar da istripuren bat egotekotan obran. Botikina erabiliko du pertsonal kualifikatua, lehen laguntza dakien norbaitek. Botikinak hurrengo elementuak eduki behar ditu legez, baten bat bukatzen bada berriz erosi da:

- Ur oxigenatua.
- 96°-ko alkohola.
- Iodoko tindaketa.
- Merkurio-kromo botila.
- Amoniako botila.
- Kotoi hidrofiloa.
- Gaza antzua, hesgailuak eta esparatrapua.
- Espasmoen aurkakoak.
- Torniketea.
- Ura eta izotzarentzako gomazko poltsak.
- Antzututako eskularruak.
- Erabili eta botatzeko xiringak.
- Termometro klinikoa.
- Apositu auto-itsaskorreko kutxa bat.

### 8.3.1.10. HIGIENEA ETA ONGIZATERAKO INSTALAZIOAK

Segurtasun eta osasun planaren barruan definiturik aurkitu beharko dira Higiene eta ongizaterako instalazio baldintzak.

#### 8.3.1.10.1. Jantokia

- Une berean lan egingo duten langile kopuru totalarentzako tokia egon behar da.
- Zoru, horma eta sabaiak lauak izan behar dira garbiketa ariketak errazteko.
- Argitasun, aireztapen eta tenperatura egokia eduki behar dute.
- Azalera eta altuera minimoak bete beharko dira.
- Mahai, aulki, ur katiluak, garbileku eta beharrezko gainontzeko elementuetaz hornituta egon behar da.
- Zaborra jasotzeko ontziak egon beharko dira.

#### 8.3.1.10.2. Aldagela eta komunak

- Instalazioak garbitasun eta higiene maila minimoak bete beharko dute.
- Aldagelek azalera minimoa edukiko dute eta gutxienez 2.3 metroko altuera izango dute.
- Eserleku eta leihatila pribatuak izango dute.
- Langile bakoitza bere objektu pertsonalak gordetzeko esparrua izan behar dute.
- Dutzak ur hotza eta beroa edukiko dute. Horretarako 50 litroko termo bat prestatuko da.

### 8.3.2. BEREZKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

Atal honetan deskribatuko diran banakako edo taldekako babes elementuak langileek istripuak edo arriskuak ekiditeko.

#### 8.3.2.1. BANAKAKO BABES ELEMENTUAK

Langile bakoitzak norberaren babesa eta bere segurtasun eta osasuna bermatzeko eraman behar duen ekipo edo jantzi behar duen arropa definituko dira ondorengo zerrendan, Norbere Babeserako Ekipamendua (NBE) bezala definituriko elementuak **NTP-102 dokumentuaren** arabera:

- Obran erabiliko dira kaskoak, MT-1 araura egokitu behar direnak. Kaskoetatik aparte, arnes bat edukiko dute burura hobeto egokitzeko. Kaskoak material erresistentez eginda egon behar dira, baina ezin dute pisatu 0.45 kg baino gehiago.

- MT-2 araua betetzen duten belarritako babesak erabili beharko dute obran dauden pertsonak. Lantokian zein inguruan 80 dB-ko zarata sobre pasatuz gero, derrigorrez erabili beharko dira.
- MT-5 araudi teknikoak betetzen duten segurtasun oinetakoak erabili behar dira. Hezetasun guneetan edo uretan egin behar diren lanak bota altuen bitartez egingo dira. Errefortzua duten botak erabili behar dira istripu mekanikoak ekiditeko, zorua irrista ezinezko laminaz hornituta izango duelarik. Oinarriak altzairu malguz eginaz egon behar dira. Tela espezifikoko erabiliko dira oinen eta narruen babesak bermatzeko, amianto, kautxu edo suaren kontra.
- Segurtasun uhalak bere araudi espezifikoa dute, MT.13 eta derrigorrez bete behar dena. Altuera jakin batean egiten diren lan guztiak aurrera eramateko segurtasun uhalak eraman behar dira. Jauzteko arriskua egon ahal den lanetan segurtasun uhalak eraman behar dira, gainera, lihozko, kotoi edo kalitate goreneko lana, edo zuntz sintetikoak eginiko zingila eramango dute langileak, zabalera 10 eta 20 cm-ko tartean egongo da eta erabili baino lehen aztertuko da egoera onean dagoela.
- Talken aurkako babes bezala, betaurrekoak erabiliko dira, MT-15 araua betetzen duten armazoi unibertsala duten betaurrekoak.
- Soldatzaileek MT-8 betetzen duten pantailak eraman behar dute begiak babesteko.

### 8.3.2.2. TALDEKAKO BABES ELEMENTUAK

Obra gunean dauden pertsona taldeak babesteko, obrakoak izan ala ez, obran eman ahal diren istripuak ekiditeko beharrezko babes neurriak eta gainontzeko elementuak hurrengoak dira:

#### 8.3.2.2.1. Baranda

Material zurruneak izan behar dira, 0.9 metroko altuera minimoa izango dute.

#### 8.3.2.2.2. Kableak

Begi-zuloa, kako, eraztunak eta uztaiak estutzeko antzadilla erresistenteak erabiliko dira. Bere segurtasun balioa ez da inoiz 6 baino gutxiago izango. Periodikoki aztertuko dira eta kableen arien %10 baino gehiago puskatuta egotekotan, kable osoa aldatu beharko da.

#### 8.3.2.2.3. Eskuko eskailerak

Zurezkoak direnean pieza bakarrekoak izan behar dira eta ondo eraikita egon beharko dira. Ezin izango dira margotu eta guztiz debekaturik egongo da inolako muntaketarik egin beste eskailerekin, behar izatekotan eskailera handiagoak erabiliko dira baina ezin

izango da bere muntaketa aldatu. 5 metro baino altuago dauden tokietara ezin izango da iritzi eskailera mota haueki. Azalera zuzen eta solidoetan eutsiko da, horrela ez bada, eskailerak euskarri plaka horizontaletan emango da. Eskailerak irrist ezineko elementuak eduki beharko dute, bai grapak, burdinazko puntak edo zapatez osotutako elementuak. Toki altuetan segurtasunez lan egiteko, eskaileraren puntak metro bat igaro beharko du euskarri puntutik.

#### 8.3.2.2.4. Lan plataforma

Mugikorrak edo finkoak izan behar dira, material zurrunez eginaz egon behar dira, hauen zorua edo pasaguneak material irrist ezinez egin beharko dira eta drainatze sistema edukiko dute. Plataforma mugikorrek finkapen sistema eramango dute mugi ez dadin lanen bitartean.

#### 8.3.2.2.5. Aldamioak

Altzairu galbanizatuz egingo dira. Aurreikusitako kargak jasateko gai izan beharko dira eta elementu horizontalak eta bertikalak ondo finkatu beharko dira.

#### 8.3.2.2.6. Sareak, segurtasun horizontal/bertikal elementuak

Sareak dentsitateko altuko poliesterrez egingo dira eta egiturari finkatuko dira euskarri metalikoen bitartez. Erresistentzia handiko elementu batean finkatuko dira, ala nola, zorua edo pareta.

#### 8.3.2.2.7. Pasaguneak

Erabiliko diren pasaguneak zurrinak izan behar dira, ezin dira okertu ezta makurtu eta zeharkako norabidean nibelatu behar dira.

**8.3.3. PLANOAK**

PLANO ZENBAKIA	IZENDAPENA	TAMAINA
1.Planoa	LURSAILAREN KOKALEKUA	DIN A3
2.Planoa	ERAIKUNTZAREN KOKAGUNEA	DIN A3
16.Planoa	HONDAKINEN KUDEAKETA	DIN A3

### 8.3.4. MATERIALEN AURREKONTUA

#### 1.1.1.

15.OSASUNA ETA SEGURTASUNA					
Kodea	UD	DESKRIBAPENA	KOPURUA	PREZIOA	TOTALA
15.1	Ud	Erregistro-kutxa zurezko tapa 50x50 cm	3,00	13,64	<b>40,92</b>
15.2	Ud	1,50 m Altzairuzko pasabide	2,00	16,63	<b>33,26</b>
15.3	m	Kamioientzako segurtasun altzairuzko tabloi, 1m luzera	8,97	24,81	<b>222,55</b>
15.4	m	Segurtasun-barandila 1 m altuera	51,89	15,33	<b>795,47</b>
15.5	m	Eskaileraren hutsunerako segurtasun sistema, 1m altuera	13,80	10,46	<b>144,35</b>
15.6	m	Forjaketaren bazterrerako segurtasun-sistema, A mota, 1015mm altuera	27,64	7,71	<b>213,10</b>
15.7	m	Forjaketaren bazterrerako segurtasun-sistema, B mota, 1015mm altuera	34,53	7,71	<b>266,23</b>
15.8	m	Sare V sistema, UNE-EN 1263-1 V A2 M100 D M segurtasuna	62,17	29,55	<b>1.837,12</b>
15.9	m <sup>2</sup>	Forjaketaren hutsunerako zurezko tabloia 1m <sup>2</sup>	3,00	11,66	<b>34,98</b>
15.10	m <sup>2</sup>	Segurtasun-sarea, UNE-EN 1263-1 V A2 M100 D M	530,40	8,12	<b>4.306,85</b>
15.11	Ud	Armadura babes tapoia	937,00	0,32	<b>299,84</b>
15.12	m	Segurtasun sare, bi forjaketaren hutsunea ixteko	35,89	12,68	<b>455,09</b>
15.13	Ud	Leiho hutsunerako segurtasuna, 95 x 165 cm	34,00	11,10	<b>377,40</b>
15.14	Ud	Ainguraketa lerroa, tentsore mekanikoa	4,00	98,76	<b>395,04</b>
15.15	Ud	Ainguraketa lerroa, finkapen mekanikoa	5,00	411,60	<b>2.058,00</b>
15.16	Ud	Sabaian landatzeko ainguraketa sistema	5,00	7,12	<b>35,60</b>
15.17	Ud	Ainguraketa lerroa, finkapen mekanikoa	14,00	9,54	<b>133,56</b>
15.18	m	Zurezko behin-behineko eskailerak	5,96	59,78	<b>356,29</b>
15.19	Ud	Hesi mugikor elektrosoldatua 3,50x2,00 m	1,00	53,06	<b>53,06</b>
15.20	Ud	Lanpara mugikorra	3,00	6,55	<b>19,65</b>
15.21	Ud	Barnealderako 500 W foko mugikorra	2,00	9,03	<b>18,06</b>
15.22	Ud	Kanpoalderako 500 W foko mugikorra	2,00	35,62	<b>71,24</b>
15.23	Ud	5 kW, behin behineko kuadro elektrikoa	1,00	320,93	<b>320,93</b>
15.24	Ud	Behin behineko instalaziorako lur-hargunea	1,00	164,56	<b>164,56</b>
15.25	Ud	Su-itzalgailua 21A-144B-C	5,00	17,38	<b>86,90</b>
15.26	Ud	Su-itzalgailua, elur karbonikoa	1,00	32,11	<b>32,11</b>



<b>15.27</b>	<b>m</b>	Obra-hondakinentzako jeitsiera-hodia 49 cm diametro	5,75	21,25	<b>122,19</b>
<b>15.28</b>	<b>Ud</b>	Jeitsiera-hodiaren oineko toldoa	1,00	14,30	<b>14,30</b>
<b>15.29</b>	<b>Ud</b>	Seguridad y Salud en el Trabajo biltzarra	1,00	116,34	<b>116,34</b>
<b>15.30</b>	<b>Ud</b>	Seguridad y Salud en el Trabajo hezkuntza ordua	1,00	82,87	<b>82,87</b>
<b>15.31</b>	<b>Ud</b>	Segurtasun-kasko	11,00	0,24	<b>2,64</b>
<b>15.32</b>	<b>Ud</b>	Isolamendu elektriko kasko	2,00	1,26	<b>2,52</b>
<b>15.33</b>	<b>Ud</b>	Erorketa ekiditeko sistema	2,00	82,94	<b>165,88</b>
<b>15.34</b>	<b>Ud</b>	Atxikipen eta finkapen sistema, fibrazko soka	2,00	70,10	<b>140,20</b>
<b>15.35</b>	<b>Ud</b>	Atxikipen eta finkapen sistema, fibrazko soka eta finkapen gerrikoa	2,00	58,69	<b>117,38</b>
<b>15.36</b>	<b>Ud</b>	Segurtasun-betaurrekoak (hautsa)	1,00	3,69	<b>3,69</b>
<b>15.37</b>	<b>Ud</b>	Segurtasun-betaurrekoak (abiadura handiko partikulak)	1,00	2,15	<b>2,15</b>
<b>15.38</b>	<b>Ud</b>	Aurpegirako segurtasun-pantaila	1,00	4,20	<b>4,20</b>
<b>15.39</b>	<b>Ud</b>	Eskularruak	18,00	3,51	<b>63,18</b>
<b>15.40</b>	<b>Ud</b>	Lan elektrikoentzako eskularruak	4,00	10,92	<b>43,68</b>
<b>15.41</b>	<b>Ud</b>	Suarekiko erresistenteak diren eskularruak	1,00	6,21	<b>6,21</b>
<b>15.42</b>	<b>Ud</b>	Suarekiko erresistenteak diren eskuzorro	1,00	5,05	<b>5,05</b>
<b>15.43</b>	<b>Ud</b>	Zorroztuentzako eskularruak	1,00	0,88	<b>0,88</b>
<b>15.44</b>	<b>Ud</b>	15 dB belarri	8,00	1,04	<b>8,32</b>
<b>15.45</b>	<b>Ud</b>	31 dB tapoi	3,00	0,02	<b>0,06</b>
<b>15.46</b>	<b>Ud</b>	Irristatzea ekiditeko botak	3,00	19,61	<b>58,83</b>
<b>15.47</b>	<b>Ud</b>	Lanerako segurtasun-botak	9,00	17,84	<b>160,56</b>
<b>15.48</b>	<b>Ud</b>	Irristatzea ekiditeko zapatak	3,00	76,02	<b>228,06</b>
<b>15.49</b>	<b>Ud</b>	Polaina pare	1,00	23,74	<b>23,74</b>
<b>15.50</b>	<b>Ud</b>	Zulaketa ekiditeko plantillak	9,00	6,80	<b>61,20</b>
<b>15.51</b>	<b>Ud</b>	Lan-jantzia	15,00	41,69	<b>625,35</b>
<b>15.52</b>	<b>Ud</b>	Eurirako lan-jantzi	9,00	6,12	<b>55,08</b>
<b>15.53</b>	<b>Ud</b>	Txaleko erreflektantea	6,00	4,81	<b>28,86</b>
<b>15.54</b>	<b>Ud</b>	Erremintarako poltsa.	3,00	2,52	<b>7,56</b>
<b>15.55</b>	<b>Ud</b>	Lunbar gerrikoa	6,00	5,01	<b>30,06</b>
<b>15.56</b>	<b>Ud</b>	Arnasketarako segurtasun-ekipoa	2,00	9,02	<b>18,04</b>
<b>15.57</b>	<b>Ud</b>	Maskara	2,00	1,88	<b>3,76</b>
<b>15.58</b>	<b>Ud</b>	Botika-kutxa	1,00	106,09	<b>106,09</b>
<b>15.59</b>	<b>m<sup>2</sup></b>	Behin-behineko komuentzako kaseta	3,00	186,17	<b>558,51</b>
<b>15.60</b>	<b>m<sup>2</sup></b>	Behin-behineko aldagela kaseta	12,00	156,44	<b>1.877,28</b>
<b>15.61</b>	<b>Ud</b>	Garbitasunerako ordua.	105,60	12,36	<b>1.305,22</b>
<b>15.62</b>	<b>Ud</b>	Kasetentzako altzariak	1,00	138,74	<b>138,74</b>
<b>15.63</b>	<b>Ud</b>	Kasetentzako zerbitzuak.	1,00	318,29	<b>318,29</b>

<b>15.64</b>	<b>Ud</b>	Baliza erreflektantea 20x100cm	1,00	6,15	<b>6,15</b>
<b>15.65</b>	<b>m</b>	Obra zinta, 8 cm zabalera	10,00	1,85	<b>18,50</b>
<b>15.66</b>	<b>m</b>	Hesia 1,10x2,50 m	10,00	3,51	<b>35,10</b>
<b>15.67</b>	<b>m</b>	Plastiko seinaleztapen zinta	10,00	3,64	<b>36,40</b>
<b>15.68</b>	<b>m</b>	Plastiko seinaleztapen zinta bikoitza	10,00	3,59	<b>35,90</b>
<b>15.69</b>	<b>m</b>	Polietilenoazko seinaleztapen maila, hondaketak mugatzeko	10,00	7,36	<b>73,60</b>
<b>15.70</b>	<b>m</b>	Polietilenoazko seinaleztapen maila, inguru arriskutsuentzako	10,00	6,94	<b>69,40</b>
<b>15.71</b>	<b>Ud</b>	PVC kartel orokorra	1,00	9,16	<b>9,16</b>
<b>15.72</b>	<b>Ud</b>	Triangelu formako seinalea	1,00	5,11	<b>5,11</b>
<b>15.73</b>	<b>Ud</b>	Debekatuen seinalea	1,00	5,11	<b>5,11</b>
<b>15.74</b>	<b>Ud</b>	Derrigortasun norabide seinalea.	1,00	5,11	<b>5,11</b>
<b>15.75</b>	<b>Ud</b>	Suntsipen seinalea	1,00	5,48	<b>5,48</b>
<b>15.76</b>	<b>Ud</b>	Ebakuazio seinalea	1,00	5,48	<b>5,48</b>
<b>15.77</b>	<b>Ud</b>	Altzairuzko txapa arriskugarritasun seinalea	1,00	12,37	<b>12,37</b>
<b>15.OSASUNA ETA SEGURTASUNA AURREKONTU TOTALA</b>					<b>19.602,00</b>

**Osasuna eta segurtasuna**

**19.602,00€**

Hemeretzi mila eta seiehun eta bi euro.

## 8.4. HONDAKIN KUDEAKETA

### 8.4.1. SARRERA

Atal honetan, proiektua aurrera eramatean sortzen diren hondakinen kudeaketa aztertuko dira, hauek era egokian kudeatzeko. Lehentasuna emango zaio hondakinen berrerabilerari eta birziklapenari. Azkenik, era egokian gestionatutako hondakinak zabortegira bidaliko dira.

#### 8.4.1.1. HONDAKINEN KUDEAKETA BURUZKO ARAUDIA

- 1998ko apirilaren 21eko 10/1998 (L22/2011) legea, hondakin buruzko legea.
- 2002ko otsailaren 8ko MAM/304/2002 agindua, hondakin balorazio, ezabapen operazioak eta europar hondakin zerrenda azaltzen duena.
- 2007ko azaroaren 15eko 34/2007 legea, airearen kalitatea eta atmosfera babesaren buruzko legea.
- 2008ko otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretua, eraikuntza eta eraispentako hondakinen produkzio eta kudeaketa erregulazio legea.
- 2009ko urtarrilaren 20ko erresoluzioa.
- 2012ko ekainaren 26an onartutako 112/2012 Dekretua.

### 8.4.2. SORTUTAKO HONDAKINEN IDENTIFIKAZIOA

Egitura baten eraikuntzan mota ezberdinetako hondakinak sortuko dira, jatorri ezberdin. Obran sortutako hondakinen identifikazioa Eusko Jaurlaritzak (2012ko ekainaren 26an onartutako 112/2012 Dekretua.) arabera kudeatuko da.

112/2012 Eusko Jaurlaritzako dekretuak tabuladoreak biltzen ditu eta LER kodigo eta materialen arabera %-ak banatzen ditu, tonelada/m<sup>2</sup> ratio eraikia, minimo, obra motaren arabera, hondakinen kudeaketa kalkulurako aplikatu diren parametroak dira:

Obra mota	Egitura mota	Hondakinen sorkuntza ratio globala
Bizitegi-eraikuntza berria	Hormigoia	0,0841 t/ m <sup>2</sup>

2.1. Taula. Ratio globala

<b>S</b> m <sup>2</sup> azalera eraikia	<b>R</b> Sorkuntza ratio globala	<b>T</b> Hondakin tonelada (s x R)
426,62	0,0841	35,88

2.2. Taula. Hondakin tonelada

RC-ko T datua lortu ondoren, hondakin motaren arabera estimazioa egin ahal da.

Gure kasuan, 112/2012 Eusko Jaurlaritzako dekretuaren arabera ehunekoak aplikatu dira.

<b>LER kodigoa</b>	<b>Hondakin mota</b>	<b>Boumena</b> (m <sup>3</sup> )	<b>Pisua %</b> (112/2012 dekretuaren arabera)	<b>T</b> RC bakoitzeko (t)
170101	Hormigoia	4,95	23	8,25
170103	Zeramikoak	13,49	37,60	13,49
170802	Igeltsuaren bidezko eraikuntza materialak	4,52	7,35	2,64
170201	Zura	9,37	9,50	3,41
170202	Beira	0,06	0,25	0,09
170203	Plastikoak	1,19	2,75	0,99
170302	Mundruna duten nahaste bituminosoak <%10	0,62	1,50	0,54
170407	Metal nahastuak	1,85	5,15	1,85
170504	Lur eta harri ez kutsatuak	427,95	5,10	590,12
170904	Eraikuntzaren beste hondakinak	1,08	2,50	0,90
030308	Papela eta kartoia	1,20	2,00	0,72
200301	Langileek sortutako hondakinak	0,60	1,00	0,36
170903	Beste hondakin arriskutsuak	2,48	2,30	0,83
<b>TOTALA</b>		469,35	100	624,17

2.3. Taula. Hondakin RC

### 8.4.3. IDENTIFIKATURIKO HONDAKINEN KUDEAKETA

Hondakinen kudeaketa materialen hondakinen prebentzio, berrerabilera sustatzea eta kaltea minimizatzea da. Xedea lortzeko birziklatuko dira hondakinak eta ezabapen egokiaren kudeaketa sustatuko da. Horrela, eraikuntza jasagarria lortuko da, kalitatea eta funtzionaltasuna kaltetu barik.

### 8.4.3.1. KUDEAKETARAKO MATERIALEN KLASIFIKAZIO ETA SEGREGAZIOA

Hondakinen kudeaketa efiziente baten bidez, materialen berrerabilera, birziklapena eta desagertzea errazten da. Beraz, aurreikusitako hondakin kantitate eta motaren arabera eta RD105/2008 artikuluan eta Eusko Jaurlaritzako 112/2012 artikuluan esaten denaren arabera, eraikinaren eta bere eraikuntzan sortutako hondakinak ataletan banatuko dira, aipaturiko taldeen kantitatea hurrengo minimoak baino gehiago aurreikusi izan badira:

Hondakin materialen klasifikazio RCD sistemaren arabera	
Adreiluak, teilak eta zeramikoak	40,00 Tn
Beira	1,00 Tn
Egurra	1,00 Tn
Hormigoia	80,00 Tn
Metalak	2,00 Tn
Papera eta kartoia	0,50 Tn
Plastikoak	0,50 Tn

1.1. Taula. Hondakin materialen klasifikazio RCD sistemaren arabera

Orain, emango den kasuaren arabera erabiliko diren banaketa neurriak adieraziko dira:

Hondakin kudeaketa planean agertzen denarekin bat etorri beharko dira hondar bilketa prozesu guztiak. Hondakin kudeatzaileak ados egon beharko da.

### 8.4.3.2. BERRERABILI OPERAZIOEN AURREIKUSPENA

Hurrengo taulan obraren eraikuntza lanen ondorioz sortutako hondakinen garbiketa eta kudeaketarako eman behar diren operazioak eta non erabiliko diren adieraziko da:

	Aurreikusitako lanak	Erabilera nagusiak
	Lan berean edo kanpoko kokapenetan ez dago berrerabileraren aurreikuspenik, baimendutako hondakindegira garraiatuko dira.	
	Hondeaketatik datorren lurren berrerabilera	Hondatze lanak
	Material zeramikoen berrerabilera	
	Birziklatutako idorretan edo urbanizazioan mineral edo harrizko hondarren berrerabilera	

	Harri izaera ez duten materialen berrerabilera: egurra, beira, etab.	
	Material metalikoen berrerabilera	
	Beste batzuk	

2.1. Taula. Aurreikusitako lanak

Aurreikusitako lanak	
	Lan berean edo kanpoko kokapenetan ez dago berrerabileraren aurreikuspenik, baimendutako hondakindegira garraiatuko dira.
	Erregai bezala edo energia sortzeko beste era bat bezala erabilera nagusia.
	Disolbatzaileen errekupeazioa edo birsorkuntza.
	Ez disolbatzaile erabiltzen dituzten substantzia organikoen errekupeazioa edo birziklapena.
	Metalak edo konposatu metalikoen errekupeazioa edo birziklapena.
	Beste materia organiko batzuen errekupeazioa edo birziklapena.
	Azido eta baseen birsorkuntza.
	Beren hobekuntza ekologikorako, lurzoruen tratamendua.
	Bere tratamendurako hondar metaketa. II.B eranskina, 96/350/CE-ren komisioaren arabera.
	Beste batzuk.

2.2. Taula. Aurreikusitako lanak

SUNTSIPENA	
	Ez da aurreikusteen suntsipen ariketarik
	Hondakin inerteen depositua
	Hondakin ez inerteen depositua
	Hondakin arriskutsuen depositua
	Besteak

2.3. Taula. Aurreikusitako lanak

**8.4.4. HONDAKINEN KUDEAKETA KONTROLA**

<b>13.HONDAKINEN KUDEAKETA</b>					
<b>Kodea</b>	<b>UD</b>	<b>DESKRIBAPENA</b>	<b>KOPURUA</b>	<b>PREZIOA</b>	<b>TOTALA</b>
<b>13.1.</b>	<b>m<sup>3</sup></b>	Tratamenduen kostua	469,35	6,71	<b>3.150</b>
<b>13.2.</b>	<b>m<sup>3</sup></b>	Hondaketa lanetatik ateratako hondakinen garraioa	252,89	3,20	<b>209,25</b>
<b>13.3.</b>	<b>m<sup>3</sup></b>	Hondakin arriskutsuen garraioa	2,48	5,40	<b>13,39</b>
<b>13. HONDAKINEN KUDEAKETA AURREKONTU TOTALA</b>					<b>3.972,64</b>

**Hondakinen kudeaketa****3.972,64€**

Hiru mila eta bederatziehun eta hirurogeita hamabi euro eta hirurogeita lau zentimo.

### 8.4.5. ERREGISTROA

Hondakinen kudeaketan hurrengo erregistroak sortuko dira prozesuen jarraipena zehatza aurrera eramateko. Hurrengo dokumentuak agertu behar diran erregistroan:

- Hondakinen kudeaketatik eratorritako dokumentuen kopia:
  - Hondakin arriskutsuen entrega agiria.
  - Zabortegi inerteen entrega agiria.
- Hornitzaileek egindako idatzizko dokumentazioa.
- Hondakin kudeaketaren kontrol formularioa.

Eraikuntzan sortuko diren hondakinen behar bezala kudeaketa agiriak edo agiri kopiak Plentziako udaletxean aurkeztuko dira.

Aldi berean, dokumentuen jaso datak apuntatuko dira, kronologikoa mantenduz. Hurrengo datuak agertu beharko dira sortutako dokumentuetan; egindako lanetan sortutako hondakin kantitatea, izaera, jatorria, helmuga eta tratamendu metodoa.

Datuak hiru urteko epean mantenduko dira artxibaturik.



## 8.5. KALITATE KONTROLA

### 8.5.1. SARRERA

Dokumentuaren atal honetan azalduko dira ze kalitate kontrol eramango diren aurrera. Horretarako, 2014-ko urriaren 28-ko 209/2014 Dekretua erabiliko da, non, dokumentu honek eraikinaren kalitate kontrolak arautzen ditu, kalitate kontrol prozesuak arautuz eta zer saiakuntza eramango dira aurrera laborategian eta zer kontrol erakunde bete behar dute. Aldi berean, 2014ko urriaren 28ko 209/2014 Dekretua, urriaren 22ko 238/1996 Dekretua hartu zuen oinarri bezala. Baita ere bete beharko da CTE kodeak esandakoa.

Akreditatutako Entsegu laborategi bat kontratatuko da entseguak, probak eta analisiak egiteko. Obra hasi baino lehen “Kalitate kontrol plana” diseinatuko da eta laborategira bidaliko zaie, kalitate kontrolak ongien koordinatzeko. Zuzendari fakultatiboa izango da laborategien zerbitzuen berriak emateko enkargatua.

Behin obrarekin hasi, zuzendaritza fakultatiboa kalitate kontrolen dokumentazioa landuko da, non, kalitate kontrol datak, prozesuak, entseguen emaitzak eta bestelakoak agertuko dira. Laborategiaren identifikazioa eta kontrolak egitean sorturiko dokumentazio guztiak zuzendaritza fakultatiboaren menpe egongo dira.

Laborategien entseguak jaso eta aztertu ondoren zuzendari fakultatiboa izan da material, obrako elementu edo instalazioen onarpenaren enkargatua, bere irizpideak eta emaitzak dokumentuetan jarri beharko ditu. Gainera, proiektuan aurredefinitutako kalitate maila minimoak bete beharko dira, kontrol planean bildutakoarekin edozein aldaketa dokumentatu beharko da.

Bukatzeko, “Obra amaierako ziurtagiria” Eskola Ofizialean aurkeztu beharko da “Kalitate kontrol ziurtagiria”, non, “Kalitate kontrol liburua” aurkeztea derrigorrezkoa izango da ziurtagiria sinatzeko. “Kalitate kontrol ziurtagiria” egindako kontrolen dokumentazio, emaitzak eta emandako ebazpenen dokumentu ofiziala izango da.

## 8.5.2. KALITATE KONTROLEAN APLIKATU

Proiektua aurrera eramateko eta kalitate, segurtasun eta osasun kontrolak betetzeko, material, obra elementu eta instalazioa arautegi espezifikoak bete behar du. Proiektuan aplikatu izan den arautegia hurrengoa da:

- Eraikuntza Kode Teknikoa (CTE)
  - Energia efizientzia eta islapen termikoa (HE)
  - Zarataren kontrako babesa (HR)
  - Osasungarritasuna (HS).
  - Suteen aurkako babesa (SI)
  - Erabileraren segurtasuna (SU)
  - Eraikin segurtasuna (SE)
    - Akzioak
    - Zimenduak
    - Altzairua
    - Fabrika
    - Zura
  - Eraikin-hormigoizko instrukzioa (EHE-08)
  - Seismo-erresistente eraikitzearen araua (NCSE-02)
  - Zementuen harrerarako instrukzioa (RC-08).
  - Erregai gaseosoen erabilera eta banaketaren araudi teknikoa eta bere ICG 01tik 11ra osagarriko instrukzio teknikoak (GAS)
  - Presioan dauden aparatuen araudia (RAP)
  - Eraikuntzetan dagoen instalazio termikoen araudia (RITE)
  - Tentsio baxuko araudi elektroteknikoa (REBT)
  - Igogailuei buruzko 95/16/CE zuzentarauaren aplikazioaren antolamendua (RAEM)
  - Suteen aurkako babeserako instalazioen araudia (RIPCI)
  - Eraikitzeako produktuen eta elementuen klasifikazioa, suteen aurreko erreakzioaren eta erresistentziaren arabera
  - Aisialdi jarduera eta ikuskizunen poliziaren araudi orokorra (RGPEAR)
  - Materialengan egin beharreko entsegu metodologiaren betetzearen UNE arauak
  - Egite proiektuaren aurretiko izen-emate tekniko partikularren agiria

### **8.5.3. KALITATE KONTROLERAKO BALDINTZA OROKORRA**

Eraikuntza Ordenazioko azaroaren 5eko 38/1999 legearen 2. Atalaren puntuak betetzeko segi behar diren pausoak azalduko dira 8.4.3 atalean, horrela, osasun eta bizigarritasun oinarritzko baldintzak betetzea lortuko da. Eraikuntza eta bere instalazioak bete behar dituzten kalitate eskakizunak aztertuko dira.

CTE kodearen oinarritzko baldintzak ezartzen duten dokumentuak hurrengoak dira:

- Eraikin segurtasun (SE)
- Suteen aurkako segurtasuna (SI)
- Erabilerako segurtasuna (SU)
- Higiene, osasun eta ingurumenaren babesak (HS)
- Zarataren aurkako babesak (HR)
- Energia efizientzia eta islapen termikoa (HE)

#### **8.5.3.1. PRODUKTU, ELEMENTU ETA MATERIALEN ADOSTASUNA CTE KODEAREN ARABERA**

Etxebizitzaren eraikuntzan erabiliko diren materialak CE zigilua eraman beharko dute, uztaileko 28ko 1329/1995 Errege Dekretuan agertzen den zuzentarauaren arabera, 89/106/CEE zuzentarauaren arabera,. Zeinen garapena edo aplikatu ahal diren bestelako europar legedien arabera.

Elementu hauek proiektuaren eskakizunak betetzeko lagungarri izango dira, bai markak, ekoizleak, zigiluak, adostasun ziurtagiriak edo kalitate bereizgarriak izan daiteke.

Bakarrik erabiliko dira CTE kodea betetzen duten ekipo edo makinariak. CTE kodea betetzen duten ziurtatzeko, ebaluazio tekniko bat egin beharko zaio, kontrol hau eskumeneko Herri administrazioaren baimena duen entitate batek egin beharko du.

#### **8.5.3.2. PRODUKTUAREN BALDINTZA**

Eraikuntzan erabiliko diren produktu, elementu, makinaria edo sistemek gutxienezko ezaugarri teknikoak izan beharko dute. Era berean, produktu, ekipo eta sistema hornitze, harrera eta mantentze baldintzak, biltegitratze eta erabilera egin beharko dira kalitate kontrolak, ziurtatzeko maila minimoa betetzen dela. Egin behar diren entseguak, onartzeko edo ukatzeko Baldintza agiri dokumentuan agertuko dira, ezagutzen diren dokumentu edo proiektuaren atalantzako aproposak izan behar diren, erabilitako dokumenturako erreferentzia eginez.

Obrako produktu, elementu, makinaria edo sistemetan adierazi beharko da prozesu edo aplikazioa. Bere araudia ezartzeko, hurrengo baldintzak agertu beharko dira:

- Onargarriak diren perdoiak
- Amaitze, mantentze eta zaintze baldintzak

- Egite, entsegu eta proba kontrolak
- Kalitate bermeak
- Onartzeko edo ukatzeko irizpideak
- Neurtze irizpidea eta unitateen egiaztapena
- ...

Bukatzeko, eraikinaren instalazioak frogatzeko, zerbitzu egiaztapen eta frogak egin beharko zaie.

### 8.5.3.3. LANAK EGITEKO BALDINTZAK

Obrako zuzendariak eta Obra egitearen zuzendariak izango dira Lan baldintza dokumentua sortzeko arduradunak, non, haien konpetentzia kontuan hartuta, hurrengo atalak aztertuko dira:

- Produktuen, ekipoen eta sistemen harrera kontrola.
- Obraren egite kontrola.
- Obra-amaieraren kontrola.

#### 8.5.3.3.1. Produktuen, ekipoen eta sistemen harrera kontrola

Harrera kontrolaren helburu nagusia proiektuaren, ekipo eta sistemak ezaugarri tekniko betetzen dituela ziurtatzen da. Horretarako hurrengo kontrol atalak beteko dira:

- Hornigaien dokumentazioaren kontrola.
- Kalitate zigiluen edo egokitasun ebaluaketa teknikoen bidezko kontrola.
- Saiakera bitarteko kontrola.

#### 8.5.3.3.2. Obraren egite kontrola

Obraren eraikuntzan Obra egitearen zuzendariak aztertu beharko du eraikinaren atal bakoitzaren egitea. Horretarako, aztertuko beharko du; zuinketa, erabiliko diren materialen kalitatea, eraikitze elementuak eta instalazioen kalitatea. Baita ere aztertuko du proiektuan aplikatu behar diren legeak eta Zuzendari fakultatiboak emandako instrukzioak betetzen diren egiaztatu beharko du.

#### 8.5.3.3.3. Obraren amaiera kontrola

Obra bukatzean, eraikin osoaren edo bere parte ezberdinen eta instalazio, bai erdi bukatuan edo bukatuan, egin beharko dira zuzendari fakultatiboak agindutako eta aplikatu ahal diren lege eta zerbitzu frogak eta egiaztapenak.

Baita ere egin ahalko dira borondatez egin nahi diren gainontzeko kontrol azterketak.

#### **8.5.3.4. OBRAREN KONTROL DOKUMENTAZIOA**

Egindako kalitate kontrolak, izan beharko ditu harrera, eraikitze eta egite obraren kontrola. Horretarako hurrengo puntuak bete beharko dira:

- Obraren egitearen zuzendariak, obran egin diren kontrolen dokumentazioa batu beharko du. Batutako dokumentazioaren artean aurkituko da eranskinak eta aldaketak bete diren ziurtatuko da.
- Obraren erabili diren produktuen dokumentazio, mantenimendu eta erabilera instrukzioak produktu hornitzaileei eskatuko zaie eta Zuzendari fakultatiboak eta Obra egite zuzendariei emango beharko zaie.
- Eraikitzaileak egin duen elementu bakoitzaren kalitate kontrola kalitate dokumentazioaren obraren kalitate kontrolen parteko dokumentazioaren parte izango da, Obra egitearen zuzendariak enkargatuko da dokumentuak batzeaz.

Obrarekin bukatzen denean, Obra egitearen zuzendariak kalitate kontrolen dokumentazio jarraipena Eskolara edo eskumena duen Herri-administrazioan utziko du. Dokumentazioa hartzen duen erkidegoa dokumentuen babesa ziurtatu behar du eta dokumentuen ziurtagiriak legezko interesa betetzen dutela arduratu beharko da.

#### **8.5.3.5. OBRA AMAIERAKO ZIURTAGIRIA**

Obra egitearen zuzendariak ziurtatuko du obran erabili diren elementuen erabilera egokia eta elementuen kalitate kontrolen azterketa. Baita ere aztertuko du garatutako dokumentazio tekniko eta jardunbide egokia izan dela eta arauen arabera egokitu direla.

Obra zuzendariak ziurtatuko du emandako aginduak bete izan direla eta dokumentazio teknikoan eta proiektuaren arabera aurrera eraman direla bidalitako eginkizun guztiak. Dokumentazio tekniko erabiltzeko prest egon behar da mantentze eta erabilera instrukzioen arabera. Obra amaierako ziurtagirietan hurrengo dokumentuak agertu behar dira:

- Obraren zehar eman diren aldaketak eta zuzendariaren adostasuna eta baimena agertzen den dokumentua.
- Obraren egin diren kontrolen arteko erlazio eta lortutako emaitzak.

## **8.5.4. PRODUKTUEN HARRERA BALDINTZAK**

### **8.5.4.1. ERAIKUNTZA KODE TEKNIKOA CTE**

#### **8.5.4.1.1. Produktuen dokumentazio kontrola CTE 7.2.1**

Hornitutako produktuak identifikazio dokumentazio ekarri beharko dute eranskina eta hornitzaileak eman beharko dizkio eraikitzaileari eta hazken honek Zuzendari fakultatibora eraman beharko dio.

Hornitzaileak emandako dokumentazioan hurrengo puntuak agertu beharko dira derrigorrez:

- Jatorria, hornikuntza eta etiketatze informazioa.
- Ekoizlearen segurtasun ziurtagiria, teknikoaren sinadura fisikoarekin.
- Beharrezkoa denean, CE zigilua eraikuntza elementuetan.
- Adostasun-dokumentua edo erregelamenduz eskatutako baimen administratiboa.

#### **8.5.4.1.2. Kalitate ziurtagiri eta ebaluazio teknikoaren bidezko kontrola CTE 7.2.2**

Hornitzaileak hurengo dokumentuak erraztu beharko dio zuzendari fakultatibora edo eraikitzaileari:

- Produktuen, ekipamendu eta sistemen kalitate ziurtagiria, proiektuaren dokumentazioan eskatzen diren karakteristika teknikoak. Baita ere agertu beharko da CTE kodearen 5.2.3 artikuluan agertzen diren baldintza ofizialen ziurtagiria.
- Produktuen, ekipamenduen eta sistemen ebaluazio tekniko eta bere ezaugarri teknikoen ziurtagiria, non, CTE kodearen 5.2.5 artikuluan agertzen diren baldintzak bete behar dira.
- Adostasun-dokumentuak edo legez eskatutako baimen administratiboak.
- Behar denean, CE maraka duten produktuen ziurtagiria eta beharrezko dokumentazioa.

Obraren zuzendariak ziurtatuko du dokumentazio nahikoa dela eta CTE kodearen baldintza guztiak betetzen dutela hornitzaileak bidalitako produktu, ekipamendu eta sistemak.

#### **8.5.4.1.3. Harrera kontrola azterketaren bidez CTE 7.2.3**

Batzuetan, kode teknikoak ezarritako baldintzak betetzen diren ziurtatzeko entseguak edo frogak egin behar dira, azterketa hauetan ziurtatuko da indarrean dagoen arauak betetzen diren edo proiektuan ezarri diren baldintzak betetzen direla.

Zuzendari fakultatiboa izango da entsegu hauen kontrol eta bete behar diren baldintzak ezartzeko arduraduna. Produktuaren laginketa metodoa, zer entsegu mota eta zer baldintzak bete behar diren produktua onartzeko edo ukatzeko eta zer motatako neurriak hartu behar diren lortutako emaitzaren arabera zuzendari fakultatiboaren eginkizunak izango dira.

Dokumentu honetan agertzen diren baldintzak CTE kodean agertzen den arabera, produktu harrera jarraitu beharreko prozesua garatzen du. Produktuen harrera prozesua egingo da Europako Erkidegoko Kontseiluak, 1988ko abenduaren 21eko, 89/106/CE Eraikuntzarako Produktuen Zuzentarauaren (DPC) arabera. Eraikuntza produktuak inportatzeko, merkatzeko eta Espainian erabiltzeko abenduaren 29ko 1630/1992 Errege Dekretuak, 89/106/CEE Zuzentaria errespetatu behar da. Baita ere CE zigilua eraman beharko dute 1630/1992 Errege dekretua betetzen dela ziurtatzeko.

#### **8.5.4.2. ERAIKUNTZARAKO PRODUKTUEN ZUZENTARAUA DUTEN PRODUKTUAK**

DPC barnean dauden Eraikuntzarako produktuak, bai UNE EN (produktu tradizionalak) araua edo DITE Gida (Europar tekniko egokitasun dokumentua, produktu ez tradizionalak) zein CE zigilua aplikazioaren duten merkaturatze hurrengo eran jasoko dira DPC-n:

##### **8.5.4.2.1. Harrera kontrola entseguen bidez CTE 7.2.3**

CTE kodearen 4.1.1.1 atalean deskribatzen den dokumentazioa dagoela ziurtatuko da, CE zigilua ezartzen dituen baldintzak aparte:

- CE zigilua produktuaren hurrengo kokalekuetako leku batean agertuko da gutxienez:
  - Produktu beran.
  - Produktuan itsatsiko den etiketa baten baitan.
  - Produktuaren bilgarrian.
  - Produktuaren bilgarrian joango den etiketa baten baitan.
  - Produktuarekin datorren dokumentazioan.
- Zuzentaria eta proiektuaren dokumentazioaren baitan agertzen diren baldintzak bete beharko dira gutxienez, CE markaketaren etiketan jartzean baieztatuko da esandako ezaugarriak betetzen direla.
- CE zigiluarekin joan behar den dokumentazioa aztertu behar da, ekoizleak sinatu duen CE onarpenaren adierazpena, onarpen sistema edozein izan ahal da. Ekoizleari hurrengo dokumentazio eskatuko zaio:
  - Egin diren entseguak, zein izan den onarpen maila. 3go produktua organismo batek igorrita.

- Fabrikaren ekoizpen kontrol ziurtagiria, onespren maila 2 edo 2+ produktua jakinarazitako organismo bat igorrita.
- CE onespren ziurtagiria, onarpen maila 1 edo 1+ produktu jakinarazitako organismo batek igorrita.

#### 8.5.4.2.2. Markaketa ezaugarriak

Markaketa ezaugarri teknikoren bat falta bada, harrera kontrola egingo da, bai kalitate kontrol baten bitartez naiz entseguen bidez, produktuaren ezaugarrien arabera.

#### 8.5.4.3. **ERAIKUNTZARAKO PRODUKTUEN ZUZENTARAUA EZ DUTEN PRODUKTUAK**

Eraikuntzarako produktua zuzentzaraua ez duenean bere harrera prozesua egiteko, CTE kodeak zehazten duen prozesua, proiektuaren dokumentazio eta araudia dituzten gutxieneko ezaugarri teknikoak betetzen direla aztertu behar da salbuespen batekin, Estatuko Administrazio Orokorrak igorritako ziurtagiri baliokidea duten E.B.-eko herrialdeetatik datozen produktuak. CTE kodearen arabera hurrengo kontrolak egin behar dira:

4.1.1.1 atalean agertzen diren dokumentuak daudela egiaztatu behar da eta adostasun dokumentua edo administrazio baimena.

#### 8.5.4.3.1. Harrera kontrola kalitate bereizgarri eta egokitasunaren ebaluazioaren bidez

2200/1995 RD-aren zehaztapenen arabera ENAC (Egiaztatze Erakunde Nazionala) arauaren adostasuna Zigilua edo ziurtagiria entitate batek igorrita.

Aztertuko da produktuaren ezaugarri teknikoak betetzen diren ziurtagiri baten bitartez. Hurrengo entitateak egin dezakete ebaluazio tekniko Espainian:

- “Eduardo Torroja” Eraikuntzaren Zientzia Institutua (IETcc)
- Egokitasun teknikoaren dokumentua igortzen duena (DIT)
- Kataluniako Eraikuntza Teknologikoaren Institutua (ITeC)
- Erabileraren egokitzapen dokumentua igortzen duena (DAU)



8.5.4.3.2. Harrera kontrola entseguen bidez

Produktuaren lagin batetan entseguak egitea eta ziurtagiri bat eman, ENAC edo Autonomi erkidegoak egiaztatutako Entsegu laborategi batek eginda

Identifikazio dokumentazioa	<ul style="list-style-type: none"> <li>○ Jatorri dokumentazioa, hornitze eta etiketa jartze orria</li> <li>○ Sinatutako orria, fabrikatzailearen berme ziurtagiria.</li> </ul>		
Bete behar diren ezaugarri tekniko minimoak	CE marka duten produktuak (1*)	Beharrezko Dokumentazioa	- CE markaren etiketa jartzea. - Fabrikatzaileak sinatutako Adostasun CE adierazpena Dokumentazio osagarria - Tipo hasierako entsegua, Jakinarazitako Organismo batek igorrita S.E.C.(3*) 3 baterako.
		Dokumentazio Osagarria	
	Araurako adostasun marka	Ekoizpen kontrol ziurtagiria. Organismo batek igorrita.	
	Araurako adostasun marka		
CE gabeko produktuak (2*)	Produktu Tradizionalak	Araurako adostasun marka (Arau zaharra)	
		Arauzko baldintza adostasun ziurtagiria(Homologatze ziurtagiri zena)	
	Produktu berritzaileak	Egokitasunaren ebaluazio teknikoa	Egokitasun teknikoaren dokumentua (DIT). Erabileraren egokitzapen dokumentua (DAU)
Beste dokumentuak	Laborategi batek egindako entseguen ziurtagiria		

3.1. Taula. Harrera kontrol entsegu taula

(1\*) CE marka duten produktuak ez dute iraungitze-datarik.

(2\*) CE markarik ez duten produktuek emate data eta balio-denboraldia dituzte.

(3\*) S.E.C.: Sistema de Evaluación de Conformidad (Onespenaren ebaluazio-sistema).

#### **8.5.4.4. ONARTZE ETA UKAPENA**

Produktu bat onartzeko, CTE kodea, betebeharreko arauak, ekoizle edo hornitzaileak erraztu duten dokumentuetako ezaugarri teknikoekin bat etorri beharko dira produktua onartzeko, bestela, uko egingo da.

Kalitate kontrol liburuan agertuko dira azterketa guztiak, produktu, ekipo edo sistema guztiak, onartzen direnean zein uko egiten direnean, baita ere agertuko ze dokumentazio dakarte.

Entsegu, froga, analisi eta proiektuan egin diren kontrol dokumentazioarekin bat ez datozenean, Obrako zuzendari fakultatiboa izango da zuzentze neurriak ezarri behar duen arduradunak, justifikatu beharko ditu eta Kalitate kontrol liburuan agertuko da.

## 8.5.4.5. KALITATE KONTROLAREN AURREKONTUA

14.KALITATE ETA ENTSEGU KONTROLA					
Kodea	UD	DESKRIBAPENA	KOPURUA	PREZIOA	TOTALA
14.1	Ud	Altzairuzko barren entsegua, batez besteko sekzioa, ezaugarri geometrikoak eta tolesketa	6,00	86,92	<b>521,52</b>
14.2	Ud	Diametro bakoitzeko barren entsegua, ezaugarri mekanikoekin	7,00	55,55	<b>388,85</b>
14.3	Ud	Hormigoiaren entsegua, Abrams konoa, erresistentzia karakteristikoa (6 probeta), aurpegiketa, eta konprezio apurketa	5,00	94,55	<b>472,75</b>
14.4	Ud	Maila elektrosoldatuen entsegua, batez besteko sekzioa, ezaugarri geometrikoak, tolesketa eta desitzaitea	1,00	142,36	<b>142,36</b>
14.5	Ud	Diametro bakoitzeko Maila elektrosoldatuen entsegua, ezaugarri mekanikoekin	1,00	55,55	<b>55,55</b>
14.6	Ud	Azterketa geoteknikoa 10 m sakonerarte, 2 azterketa granulometriko, 2 Atterberg limite azterketa, 2 hesetasun natural , dentsitate, konprezio erresistentzia eta 2 sulfato edukia	1,00	1.616,56	<b>1.616,56</b>
<b>14.KALITATE ETA ENTSEGU KONTROLA AURREKONTU TOTALA</b>					<b>3.197,59</b>

Kalitate eta entsegu kontrola

3.197,59€

Hiru mila eta ehun eta laurogeita hamazazpi euro eta berrogeita hemeretzi zentimo.

### 8.5.5. ENTSEGUAK, ANALISIAK ETA FROGAK

Hurrengo atalean aztertuko dira zer entsegu, analisi eta frogaketak aurrera eraman behar diren kalitate kontrol plana gauzatzeko. Hurrengo puntuak sartu behar dira derrigorrez kalitate kontrol liburuan:

- Altzairua
- Armadura pasiboak: Barrak
- Armadura pasiboak: Sareak
- Ateak
- Argiztapen instalazioa
- Estalkiak eta itxiturak
- Forjatuak
- Hormigoia
- Hormigoizko blokeak
- Ikerketa geoteknikoa
- Leihoak
- Margoak
- Motrailuak
- Saneamendu sarea (Hondakin eta euri sareak)
- Suaren aurkako instalazioak
- Zimendapena
- Zolatak

Bilbon, 2020 Otsailaren 16a

Unai Jauregui Arambarri

Ingeniaritza Mekanikoan Graduatua